



**Jone Loizaga Legarra** zerbitzari sopeloztarra: «Kokteletarako aukerak amaigabeak dira». ▶7

**Olatz Otalora Landa** algortarraren erakusketa hilaren 31ra arte egongo da ikusgai Torreñe aretoan. Horren xehetasunak eman dizkigu. ▶15



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**35. zenbakia**

2015eko  
urriaren 22tik  
urriaren 28ra arte



**Uxue Alberdi Estibaritz** idazle elgoibartarrak *Euli-giro* ipuin-liburuaz berba egingo du eguenean, Algortan, UKITXeko lagunakaz. ▶16-17

«*Liburuak sortutako zirrarak konpartitzea garrantzitsua da*»

© LANDER GARRO

SAKONEAN GETXO

## Pinilla akorduan

**Iaz zendu zen**, urriaren 23an, Ramiro Pinilla idazlea. Senide, lagun eta lankideek akordura ekarriko dute literatura-txango eta mahai-inguru banagaz. ▶22-23



HERRIZ HERRI MANKOMUNITATEA

## Osatuta, Uribe Kostakoa ere

**Maria Isabel Landa** eta Gontzal Hermosilla dira Mankomunitatearen presidentea eta presidenteordea, hurrenez hurren.

Udal hauteskundeetatik ia bost hilabete igaro ostean osatu dute Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea. EAJ, PP eta PSE-EE alderdiek boto berdina eman zuten erakunde horren karguak hautatzeko; EH Bilduk eta Independenteek zuri bozkatu zuten. ▶10

KIROLAK GETXO



## Galeako olatu handien begira

▶19

**Hezetasuna Auzoko Bizilagunek** adierazi dute ez dutela kiskalitako hondeamakinarekiko erantzukizunik. ▶3

**Erandioko San Jose** udal egoitzaren zerbitzuak esleitzeko baldintzak onartuta, urtean 1,6 milioi euro ordainduko dituzte. ▶5

**Leioako festetako abere-probak** auzian ipini dituzte. Alkateari milaka sinadura helarazi dizkio ATEA elkarteak. ▶6

**Plentziak perretxiko astea** hartuko du urriaren 26tik azaroaren 1era; erakusketak eta dastaketak egongo dira. ▶9

## Getxo

## Odol-emaile gehiago hartzeko ekimena egingo dute zapatuan

Zapatuan, hilak 24, odol-emate be-zrezia hartuko du Algortako Telletxe plazak. Goiz osoan, odola emateko autobusa egongo da bertan, eta 12:00etatik 14:00etara bitartean, Bihotz-Handi Getxoko Odol Emaileen elkartearen ekimenez. Gainera, Areatxu txarangak ingurua alaituko du. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Getxon oso odol-emaile gutxi dago; «askoz ere odol gehiago jasotzen dugu, ematen duguna baino», azaldu dute. Hala ere, Bizkaian, emateetan txarto ez dabiltzala aitortu dute, «baina gure elkartearen erronka Getxoko zenbakiak hobetzea da». Hori horrela, zapatukoaz gainera, beste hainbat ekintza antolatuko dituztela iragarri du Bihotz-Handi Getxoko Odol Emaileen elkarteak. ◀

## Bueltan dator Bizilagunak ekimena azaroaren 22an

Hirugarren edizioa abiatuko du hurrengo hilean Bizilagunak ekimena: bertoko familia «autoktonoak» eta bertakotutako atzerriko familiak bazkaltzeko elkartuko dira. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak, Getxoko Udalak eta Getxoko Etorrinak Plataformak antolatuta, azaroaren 22ko bazkarian parte hartuko duten familien etxeetan izango dira oturuntzak, eta topaketa bakoitzean bertoko familia bat, atzeritik heldutako beste bat eta bazkaria antolatzen lagunduko duen dinamizatzaile bat elkartuko dira. Bazkaria partekatzeaz gainera, familiek aukera izango dute euren errealitatez eta esperientziez berba egiteko, etxekoen arteko gune informalean.

### Izen-ematea

Parte hartzeko edo dinamizatzaile izateko pertsona interesatuek izena eman beharko dute alde aurretik. Normalean harremanik ez duten eta erreferentzia orokorrez elkar ezagutzen duten pertsonak elkartu ahal izango dira bazkarietan. Berba egiteko, hobeto ezagutzeko eta herri berean bizi diren pertsonen arteko zubiak eraikitzeke guneak sortzen lagundu gura dute ekimenagaz.

Bestalde, hurrengo abenduaren 5ean Bizilagunak jaira joateko aukera ere izango dute parte-hartzaileek. Donostiako Victoria Eugenia Antzokian izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko familia parte-hartzaile guztiakaz. Iaz 130 lagun inguruk parte hartu zuten, egindako 15 bazkarietan. ◀

info+: [www.getxo.net/bizilagunak](http://www.getxo.net/bizilagunak)

# «Herriko borroken bozgorailu izan gara»

**Azaroan itxiko ditu** atea behin betiko Eztabaida Gune Antiautoritarioak. Erabaki hori hartzea beharrezkotzat jo dute kolektibo legez aurre egiteko ezintasunagatik.



Gorka Barba eta Jorge Perales Eztabaidako kideak lokala husten ibili dira egunotan.

### IKER RINCON MORENO ▶

**I**railean Algortako Eztabaida Guneak atea itxiko zituela iragarri zuten. Zazpi urteko bidea egin eta hainbat lekutan kokatuta egon ostean, Villamonteko lokalak agur esango dio egitasmo horri.

### Zer dela-eta itxi ditu atea Eztabaida Gune Antiautoritarioak?

Zazpi urteko bidea egin dugu herrian, eta uste dugu hasiera batean aurreikusitako hainbat helburu lortu ditugula. Uste dugu kontra-informaziorako, borroka ezberdinak ezagutzeko eta herriko elkargune bat izateko proiektua izan dela, betiere modu kolektibo batean. Eta puntu horretan uste dugu huts egin dugula. Garai ezberdinak bizi izan ditugu, eta batzuetan jende gehiago hurbildu zaigu, eta kolektiboki egin dugu aurrera. Hala ere, azkenengo hiru urteotan hainbat arazo izan ditugu, jendea erakartzen saiatu gara, baina arrazoi ezberdinengatik gu biok gelditu gara bakarrik aurrera egiteko, eta oso zaila egiten zaigu. Horrez gainera, nolabait kolektibo moduan diskurtso propio bat kaleratzea nahi genuen herrian. Hala ere, loka-

laren gestioan indar handia inbertitu dugu, eta horrek energia kendu digu nolabait proiektu politiko bat garatzeko. Hortaz, ez du zentzurik horrela jarraitzeak.

### Zer dela-eta uste duzue gertatu dela inplikazio falta hori?

Alde batetik, uste dugu huts egin dugula jendea erakartzerakoan; ez ditugula dinamika egokiak sortu pertsona berri horiek proiektura moldatzeko, edo eurak ez direlako motibatuta sentitu. Bestalde, gaur egun jendea nahiko desmobilizatuta dago, eta egoera okerrera doa. Bestalde, eskuina nagusi den herri batean gaudela ere izan behar dugu kontuan; zaila da mota horretako proiektu bat aurrera eramatea Getxo bezalako herri batean.

### Aurrera begira bestelako proiekturen bat duzue buruan?

Eztabaida, proiektu moduan, azaroan bertan desagertuko da. Ez dugu lokalik izango; hala ere, urriaren 30era arte, arrastietan zabalduko dugu bueltatu ezin dugun materiala saltzeko, prezio erdian. Ondoren, lokala itxita dagoenean, Eztabaida kolektiboak ez dauka pentsatuta aurrera jarraitzea.

Hala ere, horrek ez du esan nahi kolektibo osatzen dugun kideok beste proiektu batzuetan parte hartuko edo sortuko ez dugunik.

Kolektibo gisa ibilbide luzea egin dugu, eta gure ustez, oso baliagarria izan da. Hala ere, gauzak hasten daki-gun bezala, gauzek noiz bukatu behar duten ere jakin beharra dago, guztiz erre baino lehen.

### Zer galtzen du herriak Eztabaidaren itxieragaz?

Itxieraren berri emateko bilera deitu genuenean, jende asko hurbildu zitzaigun. Bertan ikusi genuen nolabait Eztabaida elkargune bat izan dela herrian, nahiko irekia herriko kolektibo eta pertsonentzat. Dinamika eta proiektu ezberdinak eraman ditugu aurrera azken urteetan, eta hori egongo da faltan, gaur egun ez dirudielako egongo denik ildo horretan lan egingo duen espaziorik. Uribe Kostan, ez dago lokalik material kritikoa eta alternatiboa eskainiko duenik. Kontsumo-taldeak ere hemen hartzen zituen elikagaiak. Eztabaidak ez du material gehiago argitaratuko. Era berean, herriko borroken bozgorailu bat ere galduko da, hori ere izaten saiatu garelako orain arte. ◀

Getxo

# Hondeamakina batek su hartu du Iturribarrin

**Hezetasuna Auzoko Bizilagunek** adierazi dute ez dutela erantzukizunik kiskalitako hondeamakina dela-eta.

J oan den egunean, urriak 15, BYCAM enpresaren hondeamakina batek su hartu zuen Algortako Hezetasuna auzoan, Iturribarriko ortuen ondoan. Getxoko Ertzaintzak jakinarazi duenez, sutea gaueko 22:45ak aldera jazo zen, eta handik gutxira, suhiltzaileak bertaratu ziren sua amatatzeko. Makinak kalteak izan ditu kabinan. Sutearen zergatia eta zelan gertatu zen ikertzen dabil Ertzaintza.

Hezetasuna Auzoko Bizilagunen Taldeak (HABT) zabaldu duenez, «argi dago» ekintza horren helburua Iturribarriko lanak gelditzea, «edo behintzat atzeratzea», izan dela. Taldeak ere helburu hori izan arren, argi utzi gura izan du taldeko kideak ez direla ekintza horren aldekoak; hala, horren inguruko «inolako erantzukizunik» ez



Sutearen zergatia eta zelan sortu zen ikertzen dabil Ertzaintza.

dutela azaldu dute. Era berean, taldearen apustua «tresna demokratiakoak» erabiltzea dela eta izango dela iragarri dute bertako kideek, «modu horretara, auzokideon eta Getxoko bizilagunen kontzientziarioa eta parte hartzea sustatzea bilatzen baitugu».

BYCAM enpresa sustatzaileak luzatutako denbora agortu eta egun bira, urriaren 15ean, sartu ziren Iturribarrin

ko ortuetara hondeamakinak. Hezetasuna auzoko hainbat bizilagun batu ziren han, eguerdiko 12:00etan elkarretaratzea egiteko. Nahiz eta irailaren 25ean urbanizazioari ekin behar zioten, denbora urriaren 13ra arte luzatu zuen enpresak, auzokideen eskakizunari erantzunez. Inguru horretan 352 etxebizitza libre eta babes ofizialeko hainbat eraikiko dituzte. ◀

## GUKek herritarren iritzia jasotzeko lantaldeak sortu ditu

G UK Getxo-k iragarri duenez, «getxoztar guztiei zuzendutako» hainbat lantalde osatu ditu. Paula Amieva talde horretako zinegotziak azaldu duenez, lantaldeen helburua alor ezberdinetan egon daitezkeen gabeziak eta irtenbideak bilatu eta «alternatibak» eskaintzea da, hirigintzan eta parte hartzean, berbarako. «Politika guztion artean egin behar dela uste dugu, eta horregatik espazio irekiak sortu ditugu, edonork parte hartu ahal izateko», adierazi du Amievak.

GUK Getxo-ren ustean, hirigintza arazoak «gizarte-politiken arazoak» dira. Horren adibidetzat jarri dute Iturribarriko ortuen «suntsiketa» eta inguru horren urbanizazioa. «Iturribarrin urbanizatzeko arineketan egindako tramitazioak ebidentzian jartzen du Udalak ez dituela pertsonak kontuan hartzen, baizik eta garapenerako aukerak eta negozioak elkarrekin doazela», salatu dute.

Euren arabera, HAPOa berrikusten dabilenez, tramitean dauden exekuzio-unitate guztiak gelditu eta plan berraren barruan sartu beharko lituzkete, «Iturribarrikoak, batez ere; bertan egindako tramiteek zalantza ugari sortzen dituztelako». ◀

## BYCAMek egingo ditu Gobela ibaiko lanak Fadura inguruan

URA Uraren Euskal Agentziak BYCAM enpresari esleitu dizkio Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikoaren azkenengo fasearen lanak, Fadura inguruan. Aipatutako obrek 2,5 milioi euroko aurrekontua dute, eta lanak aurrera eramateko 12 hilabeteko epea izango dute. Datorren hilabetean hasia aurreikusten dute, akta sinatu ostean. ◀



Ez da giro

GERMAN KORTABARRÍA IGARTUA

### Oso TTIPo arriskutsuak

Z ulora garamatzatenek diote gobernu ardua ezin zaiola jende arruntari utzi (Bertolt Brecht). TTIP eta antzekoen sustatzaileentzat, aldiz, merkatuaren ardua da ezin zaiona utzi, ez jende arruntari, ezta gobernu ere: utikan arau politiko, sozial edo ekologikoak! Merkatuek erakutsi dute, ordea, diru bihur daitezkeen oro hurrupatzea beste ardurarik ez dutela, planeta bera ere hondamen zorian jartzearaino. Desmasiaren aurrean gobernu gehienek erakutsitako ahulezia edo konplizitatea ikusita, ba al dugu, jende arrunta garenok, ardua geure gain hartzea beste alternatibarik?

Urriaren 24an, Bilbon, dugu hitzordua. ◀

2015

GETXO ARTE

SALÓN PRAKTIKA DE GARAÍKIDEEN PRÁCTICAS ARETOA CONTEMPORÁNEAS

PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS AREETAKO GELTOKIA PLAZA

12-15.11.2015

ENTRADA GRATUITA DOAKOIA SARRERA

ORGANIZADORES: ARTEALAZAROLA

PATROCINADORES: GOBELER

COLABORADORES: LABINTZAROLA

Getxo ARTE, Getxo ARTE, EL CORREO, SONORA, etc.

## Getxo



Galerietako ekitaldi-aretoan egingo dute ekimena.

# Galeriekiko iritzia gura dute

**Begoñako galerien inguruan** herritarrek duten iritzia jasotzeko ekitaldia egingo dute urriaren 22an.

**B**egoñako galerietan herritarrek parte har dezaten ekitaldi bat egingo du Udalak hilaren 22an, eguena. Ekimen horregaz, galeriak «balioan» jartzeko proiektuko ildo estrategikoen garapenean aintzat hartu beharreko ekarpenak jaso gura dituzte. Begoñako galeriak birgaitzeko proiektuari lotuta, partaidetza-prozesu bat egiten dabilta, horren barruan dago ekitaldia. Ander de la Fuente Eraikitako Ondarearen EHUKo Ikerketa Taldeko arkitektoak azaldu duenez, ekimen horregaz «ekintzak egin ahalko dira kidetasun-sentimendua baliabide bihurtzeko». Herritarren partaidetzarako ekitaldia galerietako ekitaldi-

retoan egingo dute, 18:30ean, eta ordu bi iraungo du. Lehenengo zatian, ondarea eta haren aukerak zaintzeak zer garrantzia duen azalduko dute, ondarea baliabide sozio-ekonomiko bihurtzeko bidean. Begoñako galeriak balioan jartzeko proiektuak zer helburu dituen ere jakinaraziko dute. Bigarren zatian, ekitaldira joaten direnek elkarlanean jardungo dute antolatzaileak, galerien arteko lotuneak aintzat hartu eta ekarpenak egiteko. Jasotako informazio denagaz oinarri bat osatuko dute; ondoren, EHUko ikertzaileek mapa bat egingo dute proiektu horren jarduketa-eremua eta eremu hori zabalteko mugak zehazteko.

Galerietako espazioaren ezaugarriak direla-eta, Udalak adierazi du ekitaldia mugatuta egongo dela: 55 laguntzat bakarrik; hala, interesatuek alde aurretik izena eman beharko dute Getxoko Udalaren webgunean. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Manuel Torralba, Mikroipuinen Lehiaketaren irabazle

**M**anuel Torralba Alfonso algortarrak irabazi du mugikortasunaren gaineko Mikroipuinen Lehiaketako sari nagusia. Getxoko Udalak txapelketa hori antolatu zuen joan den hilabetean egindako Europako Mugikortasun Astearren barruan. Saritutako ipuin horrek gizonezko baten gogoetak kontatzen ditu: gidatzeko baimena galtzeagatik, tren-ibilbide bat egiteko beharrean ikusten du bere burua. Lehiaketako bigarren saria Juan Carlos Alonso Peña auzokidearentzat izan da.

Jose Luis Landa Getxoko Udaleko Ingurumen zinegotziak Algortan banatu zizkien sariak astelehenean, hilak 19, lehiaketaren irabazle biei. Garraio-txartela jaso du; bigarrenak, ostera, 50 euroko balioa duen beste txartel horietako bat. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Su-itxalgailuak eta botikinak, gazteen lonjetan banatzeko

**G**etxoko Udaleko Gazteria Zerbitzua su-itxalgailuak eta botikinak banatzen hasi da, «Gaztelonjak» programan parte hartzen duten lonjetan. Gaur egun, 40 gazte-lonja ingurugaz lan egiten dute (udalerrian dauden %50, Udalak jakinarazi duenez). Hala, orientazioa, aholkularitza, laguntza, eta beharrezkoa balitz, bitartekaritza eskaintzen dizkie, udalerrian gai horren inguruan sortutako zenbait eskaera eta beharri erantzuna emateko. Programan parte hartuz gero, su-itxalgailu bi eta botika-kutxa dohainik jartzeaz gainera, esku hartzeko zerbitzua ere zuzenean eskatu ahal izango dute. Horren truke, lonjek zenbait datu eman behar dituzte, besteak beste: harremanetarako kontaktu bat, baimena (adingabeen kasuan), eta instalazio elektrikoak arauak betetzen dituela erakusten duten agiriak. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)



**Algortako Ereaga hondartza** garbitzeko deialdia egin zuen Pakea Bela Eskolak. Goiz osoko jardunaldia egin zuten hilaren 18an, domeka, eta adin guztietako 30 bat lagunek hainbat kilogramo zabor batu zuten, ingurumen garbiaren garrantzia ikusaraziz. PAKEA BELA ESKOLA

**GetxoGas**

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko deskontua**  
izango duzu zure autoaren garbiketari

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epe mugagatik)



**KONTXI**  
ZU AZUBISKAR  
URDAITEGIXA  
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaitan!!  
Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



Erudio

# San Jose egoitza, esleipen-fasera



San Jose egoitzak 59 leku ditu.

**Udalak 1,6 milioi** eurogaz urtean esleituko du, San Jose egoitzako erabiltzaileentzako zerbitzua eta eguneko zentroa.

**E**rudioko Udalak 6.412.000 euroan aurreikusi du San Jose udal egoitzaren zerbitzu gehienak kontratatzeagatik enpresaren bati ordaindu beharko dion diru-kopurua, datozen lau urteotan. Izan ere, Udalbatzak berretsi ditu Kontratazio Mahaiak onartutako esleipenerako pleguak, EAJ, PSE-EE eta PPre botoakaz. Ganemos Erudio abstenitu da, eta EH Bilduk kontrako jarrera hartu du, baldintza sozial zorrotzak falta dituelako eta zerbitzua udal langileek eman behar dutela uste duelako. Onartutako baldintze-

tan zehazten denez, bi dira esleitutako zerbitzu nagusiak: San Jose egoitzan adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzua, eta dependentzia egoera duten adineko pertsonentzako eguneko zentroaren zerbitzua. Udal Gobernuak San Jose egoitzaren zuzendariagaz eta udal teknikariakaz landutako testuak jasotzen duenez, enpresak 59 pertsonarentzako zerbitzua eman beharko du. Gainera, eguneko egoitzan 20 leku eskaini beharko ditu. Kontrata sei urtera arte luza daiteke. Erabiltzaileek baldintza egokiak izateko, 32 behargin aurreikusi ditu Udalak; haietako batzuek jardunaldi laburra izango lukete. Maite Perez zinegotzi sozialistak azaldu duenez, orain finkatu dituzte 2010eko kontratuan ez zeuden lanpostu batzuk: psikologoa, podologoa, animaliaz lagundutako terapia-egilea eta fisioterapeuta. ◀

## Jado ikastetxeak 80 urte bete ditu

**P**asa den urriaren 7an, 80 urte bete ziren Erudioko Jado ikastetxeak ateak zabaldu zituenetik. Kristau Eskolen federazioko zentroak gogora ekarri duenez, 1935-1936 ikasturte hartan 200 ikasle izan zituen, lau ikasgelatan. Pasa diren 80 urteotan, eskolak milaka gazteri eman die heziketa, Laureano Jado sortzailearen asmoei jarraituz. Izan ere, Jadok «Erudioko ume denei kalitatezko hezkuntza bermatzea» gura zuen, zentroaren berbetan. Era berean, Jadok ezarri zuen katolikoa izango zela heziketa, «ikasleen formakuntzan balioen iturria izan zedin». Kontuak kontu, hainbat kongregaziori azterketa egin ondoren, Jado Fundazioak kontratua sinatu zuen Maristakaz, 1934ko maiatzaren 24an. ◀

## Indrako beharginei, udal sostengua

**I**ndra Sistemas España enpresak uztailean zabaldu zuen Estatu osoan 1850 langile kaleratuko zituela; horietako 20, Erandion. Hainbat mobilizazioen ostean, CCOO, UGT, USO eta STC sindikatuek abuztuan onartu zuten enpresak enplegua erregulartzeko espedientea zabaltzea: 100 kaleratu gutxiago, bi urteko epean. Gainera, horietako 600 lagunek aurretiko erretiroa hartzeko aukera lukete, beste baldintza batzuen artean. Horregaz ados egon ez, eta langileek hasieratik defendatutako argudioei eutsi die Erudioko Udalak, aho batez. Era berean, beharginei babesa eman, eta Jaurlaritzari eta Enplegu Ministerioari eskatu die kasua aztertzeke. Enpresari, ordea, «fede ona» eskatu dio. ◀

## Kolonbiaren alde

**K**olonbiako bake-prozesuari babesa eman diote Erudioko alderdi politiko nagusiek. Udalbatzako bost indarrek adostu dute honako izenburua duen testua: *Kolonbiako bake-prozesuari eta giza eskubideei babesa azaltzeko adierazpena*. Agiria Udalbatzak onartu behar du oraindino.

Adierazpenean, Erudioko Udalak «elkartasun osoa» adierazi dio Kolonbiako herriari, eta, bereziki, emakume, ume, afrokoloniar, komunitate indigena eta «herritar ahulenei», 50 urte baino gehiago iraun duen «gatazka sozial eta armatuak» gehien kolpatsu dituenak direlako.

Elkarrizketetan dabilzan aldeei, ostera, eskatu diete «memorian, egian, erreparazioan eta justizian oinarritu-



Politikariak eta kolonbiarrak. © ERUDIO

tako bake iraunkor eta egonkorra lortzeko ahaleginari eusteko».

Azkenik, Erudioko alderdiek bermeak eskatu dituzte, bakea eraikitzekeo prozesuan, gizarte osoak parte hartzeko, demokrazia sakontzeko eta Kolonbiako gizon-emakume denen adiskidetzeari lortu ahal izateke. ◀

## Energia aurrezteko asmoz, argiteria berritzen dabil Udala

**E**rudioko Udalak lanean segitzen du, argiztapen publikoan kontsumoa jaitsi eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko, Tokiko Agenda 21en irizpideei jarraituz. Besteak beste, Udala 203 farola eta luminaria ordezkatzeko hasi zen, modelo berriakaz. Denera, 108.872,97 euroko aurrekontua dauka eginbehar horrek. Hori delata, Erudiok diru-laguntza eskatu zion pasa den uztailean Energiaren

Euskal Erakundeari. Daborduko, lanen hiru laurdenak amaitu dituzte, eta 58 luminaria baino ez dira geratzen aldatzeko, Asua eta Erandiogoikoren artean, Avanzada errepidean.

### Dirua ere aurreztuko da

Orain arteko kontsumoa orduko 180.729 kilovatiokoa izan da. Hobe-kuntzen ostean, 40.020 kilovatiokoa izango da, %77,86 aurreztuko baita. ◀



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA  
Herri-langilea

## Fantastikoa

**E**rudioko dendariak ahaleginak eta bi egiten ari dira herrian bertan egin ditzagun erosketak. Opari, zozketa eta kaleak girotzeko ekintzak noiznahi. Lehengoan, «azoka fantastikoa». Saltokirik gehienetan produktuen jatorriaren adierazgarri ez, baina saltzaileen berbakerek penintsulako beste lurralde batzuk iradoki dizkirate. Eta tartean, umeentzako jolasak eta ipuin-kontalariak, Coriako hizkera garbian. Neska-mutiko euskaldunentzat aukera itzela beste hizkuntza bat hobeto ikasteko eta erabiltzeko. Ea hurrengoan euskal produktuak sustatzeko eta euskaraz olgetako aukera tokatzen zaigun! Horixe nire eskaera dendariei. ◀

## Leioa



Besteak beste, Ondizen, zale ugari batzen dituzte idi-probek. © LEIOAKO UKI

## Jaietako abere-probak auzian ipini dituzte

Leioako hainbat auzotako jaietan ohikoa da abere-probak egitea, idiakaz eta astoakaz; horrelako «ikuskitunetan» animaliek «tratu txarrak» sufritzen dituztela salatu du animaliei tratu etikoa ematearen aldeko ATEA elkarteak, Mari Carmen Urbie-ta alkatearen aurrean. Urriaren 7an, 10.000 herritarren sinadurak helarazi zizkieten animalia-zaleek udal agintariari, idi-probak bertan behera utz ditzala eskatzeko. Udalak sinadura horiek denak «egiaztatu» behar dituela adierazi du; «gero erabakiko du horiekaz zer egin», udaleko iturriek adierazi dutenez.

Aurtengo udan, tirabira handiak sortu ditu gaiak: Esnatu Leioak deituta, Santimamiko idi-probetan eta San Bartolomeko asto-demetan elkarretaratze bana egin zuten, animaliei «tratu txarrak» eman zitzaizkiela arbuia-tzeko; San Bartolomen, liskarrak izan ziren aldekoen eta kontrakoaren artean. Ondorengo asteburuan, Avanzadako bulebarrean egin zuten elkarretatzea aipatutako alderdiak, Ondizko jaieta-

ko idi-proba bat egiten zen bitartean. Modu horretan, aurreko asteburuan gertatutako istiluak saihestu gura izan zituzten. Ruben Belandia Esnatu Leioako bozeramailearen ustez, «gutxieneko neurria litzateke asto-probak eta idi-demak auzotako jaietako egitarauetatik desagertzea, eta diru publikorik ez jasotzea». Bere iritziz, «horrelako ekitaldiak auzotako jai-egitarauetan agertzea Udalaren ardura da, bera baita jaiak finantzatzen eta baimenak ematen dituen».

EH Bildu ere «Leioan edo beste inon» animaliek jasotzen dituzten tratu txarren kontra agertu da. Arkaitz Fullaondo koalizio abertzalearen ele-dunaren berbetan, «Udalak bermatu behar du tratu txarrak ez gertatzea horrelako ikuskizunetan, egon badauden arautegiak betearaziz». Bestalde, «usadio zaharrak edo ohiturak ezin dira zurigarri legez erabili animalien-ganako tratu txarrak justifikatzeko».

Galdetu arren, PSE-EE eta PP alderdiek ez dute iritzirik eman gai horren inguruan. ◀

## Aurretik abisua eman barik kendu zuten argia martitzenean

Urriaren 20an, martitzena, Iberdrolak argindarra eten zuten Leioako erdiguneko zenbait gunetan; besteak beste, Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazetan. Udal iturrien arabera, aurretik ez zien etenaren berri eman Iberdrolak auzokoei, eta «kaltea» jasan zuten leioaztar batzuek. Udalak Iberdrolagaz harremanetan ipini zen azalpenak eskatzeko, eta enpresatik erantzun ei zuten «09:00etatik 12:30era eten bat programatu zutela instalazio elektrikoak hobetzeko». Auzokoei aldez aurretik ez jakinaraztearen inguruan, «lana egiteko Iberdrolak kontratatutako enpresak duela informazio hori argitaratzeko ardura» esan omen zuten. Aldez aurreko jakinarazpenik egon ez denez, erreklamazioa aurkezteko aukera eman du Iberdrola konpainiak. ◀

erreklamazioak: [distribucion@iberdrola.es](mailto:distribucion@iberdrola.es)  
900 171 171

## Txikito Saria eman diote Vicrila Fundazioari

Ohiturei eusten egin duen lanaren aitortza jaso zuten hilabete hasieran Vicrila Fundazioak. Txikito edo basoerdi edalontzia, ipurdiduna, txikiteroek erabili ohi zutena desagertuta egon da azken urteotan, Lamiako Vicrila enpresak berreskuratu duen arte. Kontuak horrela, 125. urteurrena bete duen lantegi horri Ohorezko Txikito sarietako bat ematea erabaki du Txikiteroen Artean elkarteak, «Txikiteroen Festan izan duen parte-hartzeagatik». Bilbon ospatzen den Txikitero Egunean banatzen dira oroigarriak urtero-urtero; aurrean, 52 urte bete ditu jaiak. Bertan, Vicrilaz gainera, Mina jatetxeko Alvaro Garrido sukaldariak ere jaso zuten garaikurra. Sari-banaketa Zazpi Kaleetako Yohn Jauregian, Burtsa izandakoan, egin zuten. Besteak beste, Berangoko Simon Otxandategi Taldeak Godelet dantza eskaini zuten. ◀

## Pistolaz egindako bahiketa, Pinosolo auziaren erdian

Pinosolo auzian, erantzukizun penalak ikertzeko hasierako diligenzietan lekukotzat deklaratu zuten udal langile baten salaketa ikertuko du Carmen Adan del Rio Bizkaiko Lurralde Auzitegiko fiskalak. *El Mundo* egunkariak zabaldu duenez, lagun hori «pistolaz mehatxatuta bahitu» zuten 2010eko azaroaren 8an. Kazetak berak ei daukan dokumentazioan oinarrituta, udaletxeko aparkalekuan bertan geldiarazi zuten funtzionarioa, eta «Leioan dirua nork eramaten zuten» galdetu omen zion bahitzaileak, «bestela, hil egingo zutela». *El Mundok* dioenez, tiro bi bota zituen lurrera erasotzaileak, baina udal langilearen ustez «balagabeak ziren kar-



PPren salaketa artxibatu du fiskalak.

tutxoak». Bahitzailearen nortasunari buruz, berri, funtzionarioak dio garai hartan prostituzio-kluba zabaltzeko baimen-eskaera eskuetan zeukala bahitzaileak. «Bi milioi pezeta» eskaini zizkiotela ere aipatu ei du salaketa ipini duen lagunak. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO IKASTOLA**

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.  
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.  
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.  
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.  
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)  
[info@betikoikastola.net](mailto:info@betikoikastola.net) [www.betikoikastola.net](http://www.betikoikastola.net)

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

**Harrizteko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: [bilbao@limpiezasvillar.com](mailto:bilbao@limpiezasvillar.com)

Jarrai gaitzazu:

[hirukaEus](http://hirukaEus.com) @hirukaEus

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

Sopela

# «Kokteletarako aukerak amaigabeak dira»

**Urriaren 5ean egin** zen Bizkaiko Barman Txapelketa, eta Jone Loizaga Legarra sopeloztarrak irabazi zuen. Kokteletan ere gailendu zen.



Loizagak denbora gutxi daroa koktelak prestatzen; ekainean murgildu zen mundu horretan.

## ZUBEROA ITURBURU ▶

**L**ehenengoz parte hartu du Jone Loizaga Legarra sopeloztarrak koktel-txapelketa batean, baita irabazi ere.

### Lehenengoan irabazi duzu!

Bai, oso pozik nago. Batez ere, ikastera joan nintzen. Sorpresa hartu nuen.

### Asko daroazu koktelak prestatzen?

Ez. Aspalditik ikasi nahi nuen, baina orain arte, ez dut aukerarik izan. Ekainean hasi nintzen jabetxe batean lanean, eta eurakaz hasi naiz ikasten.

Jon Nafarrate zuzendariak eman zidan txapelketaren berri; irakatsiko zidala esan zidan, eta izugarri eskertzen diot. Berak eman zizkidan jarraibideak, eta neuk asmatu nuen koktela. Gero, probak eta probak egin... eta aurkeztu.

### Koktela aurrez sortzen duzue?

Txapelketa honetan, bai. Etxean probak egin ditut txakolinagaz eta osagaiakaz.

### Koktel bi egin behar zenituen, ezta?

Koktel eta gin-tonic bana egin behar nituen. Derrigorrezkoa zen koktelak txakolin-kantitate jakin bat edukitzea.

Nahiko klasikoa egin nuen gin-tonica, besteen aldean. Gin-tonicaren kasuan, uste dut sinpleena dela onena. Irabazi nuen koktel onenari saria, baita sari orokorra ere, *barman* onenari.

### Koktelak zer zuen? Esan badaiteke...

[Munetaberrri] txakolina, pasio-frutazko likorea, laranja zukua, gin-a, pasio-frutazko almibarra eta purea. Oso erraz edaten da, alkohola apenas nabari da, ematen du zukua edaten duzula.

### Zelan otu zitzaizun nahasketa hori?

Pasio-frutarena ia-ia hasieratik argi izan nuen. Pentsatzen hasi nintzen tx-

kolina zegaz nahas nezakeen. Fruta bat gaz egitea erabaki nuen, baina zeinegaz? Bada, pasio-frutagaz; jabetxean nahiko erabiltzen dugu-eta. Produktuak bilatu, eta probatzen hasi nintzen. Nahiko ondo gelditu zen. Purea azken unean topatu nuen, txapelketan, han zeuzkaten osagaien artean; azken ukitua eman zion koktelari. Bilbo Rose edo Bilboko arrosa izena ipini nion.

### Ohikoa da ardoagaz koktelak egitea?

Kokteletan sakontzen ari naizela, asko irakurri dut, eta badirudi modan ipintzen ari dela. Badago koktel asko ardoagaz edo txanpainagaz. Euren historia oso interesgarria da, konbinatzeko aukerak amaigabeak dira. Koktel batzuek badaukate izena, historikoak dira. Adibidez, Shirley Temple ezaguna. Izen bereko ume-aktorearentzako sortutako koktela da, alkohol bakoa.

### Zergatik erakarri zaitu mundu horrek?

Ostalaritzan nabil 16 urte ditudanetik. Beti izan dut gustuko, ikastekotan ere izan nintzen. Badakit bertan segitu nahi dudala. Garrantzia ematen badiot konbinatuak edo kafeak ondo jarzeari, pentsa... koktela ia artea da.

### Zergatik da garrantzitsua saria?

Aukera ematen du erakusteko ez gabiltzala honetan beste ezer egiten ez dakigulako, baizik eta gustuko dugu-lako gauzak ondo egitea eta jendea gustura egotea. Baina jendeak, askotan, ez du baloratzen.

### Pertsona berezi batek eman zizun saria, ezta?

David Riosek. Berangokoa da, eta koktelen munduko txapelketa irabazi zuen 2013an. Ardura sentitu nuen saria jasotzerakoan. Orain, Cadizera joango naiz Indi markako tonikagaz koktela asmatzeko. Artisanu-tonikak egiten dituzte; alkoholik gabeko koktela egin behar dugu. Ea zer sortzen dudan, zaila da-eta alkoholik gabeko koktelak egitea. ◀



Hartzaindegitik batxilergora  
arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela  
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus

www.anderdeunaikastola.eus



## Barrika



EH Bilduren arabera, sistema «jasangaitza eta onartezina» da.

## Hondakinak batzeko sistema, ezbaian

**B**arrikako Hiri Hondakin Solidoen bilketarako sistema «jasangaitza eta onartezina» da, bertoko EH Bilduren arabera. Baiezta-pen horretarako, koalizio abertzaleak zortzi arrazoi eman ditu.

Azaldu dutenez, hondakin «oso gutxi» batzen da: «%22, gutxienez %75 izan behar duenean»; era berean, «oso garestia» dela uste dute: 119.500 euro urtean. Udalerrian, zerga bidez lortutako dirua kostua baino %43 gutxiago dela iragarri du EH Bilduk, «zehazki, 2014an, diru-sartzeak 51.000 eurokoak izan ziren». Horrez gainera, edukiontzien kokapenari desegokia deritzo koalizio abertzaleak, «gainera, edukiontzi berdeak beste guztiak baino gehiago dira». Hainbat lekutan zaborra lurtean botata dagoela ere salatu dute, eta «euren lana ez delakoan»,

garbitzaileak zakar hori garbitzen ez dutela salatu dute, eta Goierrri ingurua ipini dute adibidetzat.

Halaber, salatu dute Barrikako Udalak hondakin sorrera murrizteko neurririk hartzen ez duela eta beste urte batez Enviser enpresari esleitu zaiola garbiketarako zerbitzua; enpresa hori bakarrik aurkeztu ei zen lehiketa publikora. Hori dela eta, EH Bilduren arabera, «enpresa horrek urte ugari daramatza horretan, sektore horren monopolioa ikustaraziz».

Hori guztia dela-eta, EH Bilduk hondakin bilketa eraginkorra ez dela salatu, eta sistema hori jasangaitza dela adierazi du. Horren aurrean, konposta egiteko apustua eta edukiontzien lekuak berrikustea proposatu du koalizio abertzaleak, besteak beste. ◀

## Magia eta zinema, familia osoarentzat, Kultur Gunean

**U**rria akabatzean dago, baina oraindino ere badago zer egin Barrikako Udal Kultur Gunean. Literatur tailerraren ostean, etxeko txikienek magiagaz liluratzeko aukera izango dute hilaren 22an, eguenagaz. Izan ere, egun horretan, 3 eta 12 urte arteko neska-mutilek magiaren munduko trikimailuak ezagutzeko eta proban ipintzeko aukera izango dute liburategian. Horretarako, interesatuek 17:30ean hurbildu beharko dute bertara; saioak 19:00etara arte iraungo du.

Astebete beranduago, ostera, familia osoari begirako filma proiektatuko dute Ander Deuna Kultur Aretoan, hilaren 30ean, barikua, hain zuzen ere. Oraindino zehazteko dago aurkeztuko



Magia saioa hilaren 22an izango da. SHANA

duten pelikula zein izango den. Hala ere, horretaz gozatu gura duten guztiak 17:30ean hara hurreratu beharko dute; aurrekusten dutenez, saioak 19:00etara arte iraungo du. ◀

info+: [www.barrika.net](http://www.barrika.net)

## Urduliz

## Azoka egingo dute Siriako errefuxiatuen alde

**S**iriako errefuxiatuentzako dirua batzeko azoka egingo dute aste akabuan, hilaren 24tik 25era. Azokan bildutako diru guztia Gurutze Gorriari emango diote, erakunde hori arduratuko da-eta laguntza errefuxiatuei helarazteaz. Ekimena bertoko neskatalde batek bultzatu du, gerratik ihesi dauden pertsonen bizi duten egoera latzaren aurrean zerbait egin beharra zegoela uste baitzuten. Hala, Udalak

kiroldegia dohainik utzi die, bertan azoka egiteko. Gura duenak hilaren 23ra arte eman ahal izango ditu nahi beste produktu, ondoren saldu ahal izateko. Batzen den guztia salgai ipiniko dute azokan, prezio merkean, hilaren 24an, zapatua, eta 25ean, domeka, 11:00etatik 21:00etara. Azokan, hainbat jarduera ere egongo dira: trikitiaren musika, umorezko irakurketa dramatizatuak, eta opilen dastaketak. ◀

## Berango

## Latinoamerikako musika entzungai zapatuan Antzokian

**Z**apatuan, hilaren 24an, Latinoamerikako musikak hartuko du Berango Antzokia. Hala, Trio Veracruz taldeak Mexikoko doinuak ekarriko ditu gogora, ezagunak diren boleroak eta abarrak kantatuta. Saio horregaz gozatu ahal izateko, interesa dutenek arrastiko 07:00etan hurreratu beharko dute Berango Antzokira; 3 euroan izango dute sarrera.

Emakume batek eta gizon bik osatzen dute Trio Veracruz hirukotea. Hainbat abesti ezagun kantatzeaz gainera, euren sortutakoak kantuak ere abesten dituzte, betiere Latinoamerikako «zaporea eta mina» oinarri hartuta. Agustin Lara, Chabuca Granda eta Tomas Mendez musikariak hartu ditu oinarri behin baino gehiagotan hirukoteak, taldekideek euren azaltzen dutenez. ◀

## Txotxongiloak eta beldurrezko komediak, umeentzat

**G**aztelaniazko saioen ondoren, euskarazkoen ordua helduko da hilaren amaieran Berango Antzokira. Izan ere, urriaren azkenengo egunean, euskarazko saio bi hartuko ditu eraikin horrek, biak ala biak umei begirakoak. Lehenengoa hilaren 25ean izango da, domekan. Egun horretan, neska-mutil txikienezko txotxongilo saioa egingo dute, arrastiko 18:00etatik aurrera. Ekitaldi horretan, hainbat ipuin kontatuko dituzte: sorginak, dragoiak eta lamiak agertuko dira.

Hurrengo astean, berriz, *Halloween* ospakizuna ekarriko dute gogora 19:00etan film baten proiektioagaz. *Monster House* aukeratu dute horretarako, etxe sorgindu batean oinarritutako beldurrezko komedia. Filma 7 urtetik gorako umei dago zuzenduta; sarrera doakoa izango da. ◀



**Umeen Bizikleta Festak** gorpil biko ibilgailuaren erabilera sustatu du beste behin ere, Erandiotik Berangorako ibilbidean. Elkar Kiro-lak-ek antolatuta, milaka lagunek pedalei eragin zieten joan den hilaren 18an, familia artean bizikletaren jiaz gozatzeko. ELKAR KIROLAK

## Plentzia


# Perretxikoz beteriko astea

**Urriaren 26tik azaroaren 1era** bitartean, Plentziako perretxikozaleek basoko altxor horren nondik norakoak eta sekretuak ezagutuko dituzte.

**U**dagoiena, perretxikoak eta onddoak eskutik helduta etorri ohi dira. Herrieta-ko talde mikologikoek gure basoetako urregorri preziatu horien inguruko sekretuak argitara emateko jardunaldiak egin ohi dituzte udazkeneko egun hezeetan. Hala, hurrengo Plentziako perretxikozaleen txanda izango da. Urriaren 26tik azaroaren 1era bitartean, Plentziako Uria XVIII. Perretxiko Astea egingo dute. Argazki-erakustaldiagaz zabalduko dute as-  
tebeteko jardunaldien egitaraua. Gure inguruan hazten diren perretxiko eta

onddoen irudiak Goñi Portalean bertan ikusi ahal izango dira. Hilaren 27an, martitzena, berriz, sukaldari baten udazkeneko basoko fruitu horiekaz jaki itzelak zelan presta daitezkeen ezagutarazteko berbaldia emango du. Ekitaldi gastronomiko hori Goñi Portalean izango da, arrastiko 07:00etan.

Azaroaren 1ean, ostera, egun handia izango dute zaleek. Goiz osoan, perretxikozaleek Plentziako Astillero plaza hartuko dute XXXV. Perretxiko Erakusketa egiteko, 11:00etatik 14:00etara. Bertaratutakoek basoen jaki ederrenak ezagutu ahal izango dituzte, barbarako: onddo beltza, onddo zuria, belardi-ezkoa, urril-ziza, ziza hankaurdina, errotaria, esnegorria, gibeldurdina, kuletoa, galanperna eta zizahoria. Horren ondoren, 12:00etan, 14 urtera arteko umeentzako lehiaketa egingo dute; horretan, neska-mutilek onddoak klasifikatu beharko dituzte.



Azaroaren 1erako egitarau zabala prestatu dute perretxikozaleek Astillero plazan.

Jarraian, adituek jasotako hainbat perretxiko-motagaz egindako pintxoak dastatzeko saioa ere egingo dute, bertaratutakoek onddo baten zein bestearen arteko desberdintasunak das-

tatu eta igarri ahal izateko. Azkenik, perretxikorik onena bildu duenari saria emango diote. Sariaren izendapen horregaz, amaiera emango diote Plentziako XVIII. Perretxiko Asteari. ◀



Plentzia Telebistak antolatu du tailerra.

## Umeei begirako telebista ikastaroa

**T**elebista eta bertan agertzen diren saioak gure egunerokoaren parte dira. Erraza da telebistaren aurrean jesarri, botoia sakatu eta film bat zein albisteak ikustea; baina zelan egiten da hori dena?

Bada, Plentzia Telebistak horren inguruko tailerra antolatu du, eta azaroan hasi eta urtarrilera arte iraungo du. Tailerrean, etxeko txikienek telebistaren nondik norakoak ezagutuko dituzte, eta euren programak egiten ikasiko dute, kamerak zelan erabiltzen diren ikasiz eta edizio-programak erabiliz. Telebistaren gaineko

tailer hori 2000 eta 2006 artean jaiotako neska-mutilei zuzenduta egongo da. Bideoak egiten ikasi gura dutenek, bideo-kameragaz ibiltzea gustukoa dutenek, edizio-ezagupenak lortu nahi dituztenek eta talde-lanean jardutea gustuko dutenek aukera itzela izango dute, horrenbestez, tailer horregaz. Hala, horretan parte hartzeko interesa dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, Goñi Portalean edo e-mail bidez. ◀

info+: [www.plentzia.eu](http://www.plentzia.eu)  
harremanetarako: 946 775 541  
[kultura.plentzia@bizkaia.org](mailto:kultura.plentzia@bizkaia.org)

## Markesina ipini dute metro-geltoki ondoan

**B**izkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) marquesina bat jarri du metroaren ordezkotako autobusa hartzeko geltokian. BGPK azaltzen duenez, aldeztu aurretik hartutako neurri bat izan da hori, eta 7.300 euroko kostua izan du (BEZ barik). Aipatu dutenez, erabiltzaile askok marquesina baten beharra ikusten zuten, eurretik babeseko. Marquesina aparkalekuaren inguruan ipini dute, metro-geltokiaren alboan; lur eremu hori, hain zuzen ere, URA Uraren Euskal Agentziarena da.

Ordezko autobus-zerbitzu hori ezarri dute gaur egun metroak ez duelako Plentzia eta Sopela arteko bidea egiten, eta ez ei du egingo Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko lanek irauten duten bitartean. ◀

## EAJk A3537 bus-lineari eutsi gura dio

**J**oan den ekainean, Bizkaibusek A3537 zerbitzua ezarri zuen, Plentzia, Gorniz eta Mungia autobus-linea batez elkartzeko asmoz. Hiru herri horiez gainera, Lemoizen eta Maruri-Jataben ere geldialdiak egiten ditu autobusen linea horrek. Hala ere, hasierako proiektu hori datorren azaroaren 29an eten egingo dute, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri duenez.

Zerbitzu horrek harrera «ona» izan du auzokideen artean, Plentziako EAJren arabera. Izan ere, auzokideen iritziaz jaso dituzte, baita hainbat iradokizun ere, eta auzokideek positiboki baloratu dute autobus-linea. Hori dela eta, zerbitzu hori aurrerantzean mantentzeko ahaleginak egingo dituztela iragarri dute jeltzaleek. ◀

## Martxan dira Legarrondo pasealekua konpontzeko obrak

**E**spainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak sustatutako PIMA ADAPTA planaren barruan, hasi dira Plentziako itsasadarren ondoko Legarrondo pasealekua konpontzeko obrak.

Bertoko Talde Independenteak onartu zituen lan horiek aurreko legealdian. Talde Independentearen arabera, obrak Bizkaiko Kostalde Mugar-teak kudeatu zituen. ◀



Pasa den astean hasi zituzten lanak.

Uribe Kosta

# Zerbitzu Mankomunitatea osatu dute

**Maria Isabel Landa** Berangoko alkatea eta Gontzal Hermosilla Sopelako alkatea izango dira Mankomunitateko presidentea eta presidenteordea, hurrenez hurren. Batzordeak oraindino osatzeke daude.

**H**auteskundeetatik ia bost hila-bete igaro eta gero osatu dute Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea. EAJ, PP eta PSE-EE alderdiek boto bera eman zuten erakunde horren karguak hautatzeko; hala, hiru alderdi horien 10 botoak batuta, Maria Isabel Landa (EAJ) Berangoko alkatea aukeratu dute Mankomunitateko presidentea. Gontzal Hermosilla (EAJ) Sopelako alkatea, berriz, presidenteorde izendatu dute. EH Bildu eta Plentzia zein Gorlizko Independenteen bost botoak zuriak izan dira.

Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizek osatzen dute Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea. Erakunde horren helburua mankomunitatutako udalen ardurak modu elkartu batean eskaintzea da: ongizatea, ingurumena, euskara, berdintasuna, eta Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa. Mankomunitatearen Gobernu Batzordea udalerrietako alkateek osatuko dute, hau da: Roberto Muñoz (Barrika, EAJ), Maria Isabel Landa (Berango, EAJ), Aran-

tza Etxebarria (Gorliz, EAJ), Unai Andraka (Lemoiz, EAJ), David Crestelo (Plentzia, EH Bildu), Gontzal Hermosilla (Sopela, EAJ) eta Javier Bilbaok (Urduliz, EAJ). Kontratazio Mahaia ere alkateek osatuko dute; ostera, Osoko Biltzarrean ordezkari guztiek parte hartuko dute, «udal baten udalbatza balitz bezala», azaldu du Maria Isabel Landa Mankomunitateko presidentea. Aurreratu duenez, bestelako batzorde guztiak eratzeko daude oraindino, «hurrengo bilkuran erabakiko da nor izango den batzorde bakoitzaren burua».

## «Errealitatea islatu barik»

EH Bilduko ordezkariak Mankomunitatearen kudeaketa kritikatu dute, erakunde horren ordezkariak ez duelako «islatzen» mankomunitatutako udalerrien espektro politikoa. Era berean, salatu dute estatutuak «EAJren neurria egokituta» daudela. Udalerririk horietan, jeltzaleek 40 zinegotzi dituzte, baina 8 ordezkari hartzen dute parte Mankomunitatean, jakinarazi dutenez. PPK zinegotzi bakarra du udalerririk horietan,



Mankomunitatutako udal ardurak kudeatzen ditu Mankomunitateak.

eta ordezkaria du erakundearen. PSE-EE-ren kasuan gauza bera gertatzen dela azaldu dute: nahiz eta zinegotzi bakarra duen, ordezkaria du. EH Bilduk, ostera, 26 zinegotzi izan arren 3 ordezkari «bakarrak» dituela gaitzetsi du koalizio

abertzaleak. Horren aurrean, EH Bilduk hainbat alditan eskatu du estatutu berriak egitea Mankomunitatearen «ordezkari demokratikoa» lortze aldera, «udalerririk bakoitzaren pisua eta aukera ideologikoak kontuan hartuta». ◀

## Errefuxiatuak hartzeko laguntza-programa, martxan

**E**UDEL EAEko Udalen Elkartea errefuxiatuak hartzeko Ekintza Batzordean parte hartzen ari da. Hori horrela, elkarre horrek unean uneko informazioa emango die udalei, «argi jakin dezaten zein diren euskal ekintza-estrategian artikulatzen diren erantzunak, esparru horretako udal jarduerak behar bezala koordinatu daitezkeen», azaldu dute. EUDELe dioenez, behar gehien duten pertsonen laguntza ematen dien giza mugimendua aberatsa du EAEk. Hori dela-eta, errefuxiatuei laguntza emateko ohiko bideak zeintzuk diren ezagutarazteko kanpaina martxan ipini du. Elikagaiak

batzeko, elikagaien bankuen helbide eta telefonoak iragarri dituzte; era berean, gobernu kanpoko elkarrekin laguntzeko gonbita luzatu dute, CEAR eta Gurutze Gorrian, barbarako. Errefuxiatuentzako etxebizitzak lortze aldera, etxea libre dutenek erakundeak eskaintzeko aukera ere zabaldu dute, Eusko Jaurlaritzaren Alokabide zerbitzuaren bitartez.

Siriako 1.200 errefuxiatu inguru hartuko ditu Hego Euskal Herriak. Bizkaiak 520 bat hartuko ditu; Gipuzkoak, 330; Nafarroak, 200; eta Arabak, 150. Datuok aldakorak izan daitezkeela adierazi dute arduradunek. ◀

## ATAren Uribe Kostako taldea aurkeztu dute Berangon

**E**guaztenean, hilak 21, lehenengo ebilera egin zuen Berangon Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduaren (Amnistia Ta Askatasuna edo ATA lege ezagunagoa) Uribe Kostako taldeak. Joan den astean, berriz, taldearen aurkezpena egin zuten Berangon, 25 lagun aurrean. Mugimendu horretako kide bik azaldu zuten, 1975ean eratu zireneko lehenengo Amnistiaren Aldeko Batzordeen «izpiritua» berreskuratzea gura du ATAk. Hori horrela, herriz herri edo eskualdez eskualde taldeak antolatzen dabilta. Mugimenduko kideek adierazi zuten «borroka armatu-

ko fasea» amaitu dela, eta oso kritiko agertu ziren ETAK jardura armatua utzi eta lau urteren osteko egoeragaz. Hala, «amnistia lortu arte borrokatzeraz» deitu zuten. ATA 18 hilabeteko ibilbidea egin du, eta daborduko Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan dagoela azaldu dute. Herri-mugimenduzat dute euren burua, asanblarioa, horizontala eta «guztiz independentea». Era berean, azaldu dutenez, aparte antolatu dira «ezker abertzalearen estrategian puntu hori egon ez dagoelako». Hala ere, ezker abertzaleko militanteak direla onartzen dute: «hortik gatoz». ◀

SARTU GURE  
WEB BERRIAN  
www.cianoplan.es  
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan  
DIGITAL PRINTING



Aurten boluntariotza-programa bat abian ipini du Gerediaga elkarteak. © DURANGOKO AZOKA

# Durangoko Azoka, 50 urtez

**Abenduaren 4tik 8ra** zabalduko ditu ateak Durangoko Azokak. Horrenbestez, ohi baino egun bat gehiago iraungo du 50. ekitaldiak. Azokaren sortzaileak omenduko dituzte.

**A**zokak aurten 50. urteurrena ospatuko du, modu berezian. Gerediaga elkarteak da Durangoko Azokaren antolatzailea, eta Nerea Mujika presidentearen ustez, zabala da ekimen horrek mende erdian egindako ekarpena: «50 urte idazten, kantatzen, go-goetatzen, gozatzen, eztabaidatzen, ospatzen» eman du, Mujikak azaldu duenez. Atzera begiratuko du aurten

Durangok, eta azokaren sortzaileei gorazarre egingo diete, Argizaiola saria emanez. Zortzi lagun dira: Kontxi Astola, Jose Luis Lizundia, Leopoldo Zugaza, Carmen Miranda, Jesus Astigarraga, Koldo Alzibar, Txarines Astola eta Maria Arrate Salazar. Mujikak azaldu duenez: «1960ko hamarkadan, Frankismo betean, euskal kultura debekatua eta euskal kulturagileak jazarriak zirenean, argitasuna, erabakime-

na eta kemena izan zuten Gerediaga kideek: beharrezkoa zen euskal kultura argitara ateratzea, bizia ematea eta prestigioa irabaztea; horretarako egokiena azoka bat antolatzea zela sinistu, eta buru-belarri ekin zioten. Horiguztia, euskal kulturaren birsortze osobaten barruan: euskara batua, ikastolak eta helduen alfabetatzea, Ez dok Amairu...».

## Etorkizunari begira

Hala ere, Gerediagaen asmoa ez da lehengoratzea eta iraganean lotzea, etorkizuneko erronkei eustea baino. Aurtengo urtemuga biribilak kartel

berezia izango du, Jose Luis Zumeta izen handiko margolariak egina. Zumetak aitortu duenez, kartelean ez die egin modu zuzenean liburu eta diskoiei erreferentziarik; zeharka, ordea, bai: «lan irekia da, eta bakoitzak bere erantzuna eman beharko dio... Pertsona bakoitzak bere modura ulertuko du. Nik uste dut lanek ez dutela erredundantzia gehiegirik behar, bakoitzak eman behar diola erantzuna...».

Era berean, Azokak datozen urteotan erabiliko duen *DA!* izeneko komunikazio-bitartekoa aurkeztuko du. Egitaraua, ostera, azaro erdialdean aurkeztuko dute. ◀

## Lauaxeta olerki-lehiaketa abiatu dute Mungian

**M**ungiako Udalak plazaratu ditu aurtengo *Lauaxeta* olerki-lehiaketaren oinarriak. Sariketa Estepan Urkiaga Basaraz euskal idazlea zenaren omenez egingo dute; eta sari bi banatuko dituzte: 800 eta 500 eurokoak. Lan denek *Itzarrik* goiburua izan beharko dute, eta horren interpretazio librea izango dira, beti ere testuak originalak eta euskaraz izatekotan. Intersatuek azaroaren 12ra arte izango dute epea lanak bidaltzeko, honako helbidera: Astiunerako Udal Erakunde, Agirre Jauregia, Aita Elorriaga 1, 48100 Mungia. ◀

info+: [Ttiki.com/342130](http://Ttiki.com/342130)



1937an hil zuten Lauaxeta.

## Munduko Landareen Azoka ipiniko dute Leioako campusean

**B**ost Kontinenteetako Landareen Lehenengo Azoka hartuko du aste-akabu honetan Leioako campuseko Arboretumak. Zapatuan eta domekan, ikusi eta erosi ahal izango dira mundu osoko landareak, 26 ekoizlekarritakoak. Gainera, aukera egongo da bertoko produktuak dastatzeko, eta gune horretako bidezidorretan paseatzeko. Ekitaldia egundoko erakuslelhoa izango da gure planetan dauden landare apaingarrien espezie eta mota asko ezagutzeko; gehienak ezezagunak dira gure artean, baina hemen erraz erein litezke. Horrez gainera, landatzeko teknika eta ezagupenak partekatuko dituzte. ◀

## Sol Pico dantzariaren emanaldia bertan behera geratu da

**S**ol Pico dantzari eta koreografo kataluniarrak *One hit wonders* ikuskizuna eskaini behar zuen bariku honetan, urriak 23, Kultur Leioan. Kultur erakundeak azaldu duenez, dantzariak lesio bat izan du, eta hurrengo hilabeteetan eman beharreko saio denak bertan behera utzi behar izan ditu, horien artean Kultur Leioakoa. Horrek eragin ditzakeen eragozpenak kontuan hartuta, sarrera erosi duten pertsonei dirua berreskuratzeko aukera eskaini diete, ala beste ikuskizunen bat ikusteko, berbarako: VerTeDance Company & JiriHavelka konpainia txekiarrak azaroaren 6an Leioan eskainiko duen *Correction* ikuskaria. ◀

# hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko urriaren 2tik urriaren 28ra arte



hiruka.eus



SOPELA

## Eleanor McEvoy abeslari irlandarraren kontzertua

Bariku honetan, urriak 23, Kurtzio kultur etxean eskainiko du zuzeneko Eleanor McEvoy abeslari irlandarra. Hitzordua 20:00etan izango da, eta sarrera 5 euroan egongo da. Ospe eta arrakasta handiko kantautorea da Eleanor McEvoy Irlandan. 1992an nabarmendu zen bere herrialdean. Garai hartan idatzi zuen «Only a woman's heart» abesti arrakastatsua, A

woman's heart disko antologikoan argitaratu zuen kanta. Harrezkero, Irlandako musikaren historian gehien saldu den lana da; Van Morrison edo U2 talde garrantzitsuen lanei itzala egitera iritsi zen.

Bere burua ezagutaraztea 1992an lortu bazuen ere, umetatik argi zuen McEvoy musikarako zaletasuna. Lau urte besterik ez zituela Irlandako

musika lehiaketa batean parte hartu zuen; bere ahizparen bandan abesten zuen. Zortzi urtegaz Dublingo musika-eskolan biolina eta pianoa ikasten hasi zen.

2014an kaleratu zuen McEvoyk es-tudioko azken diskoa: *Stuff*. Disko horretako abestiak izango dira entzungai, besteak beste, Soplan eskainiko duen emanaldian. ◀

2015/10/22 - 2015/10/26

### Familien arteko jolasak

Hainbat herri | Uribe Kosta

Euskaraz Olgetan egitasmoaren barruan. Hilaren 22an, Plentziako Ontziola plazan (17:30); 23an, Urdulizko Antsoñekoa plazan (17:30); 24an, Gorlizko Ibarreta plazan (12:00); 25ean, Larribasterrako Urgitxieta plazan (12:00), eta 26an, Armintzan (17:00). Doan.

2015/10/22 - 17:30-19:00

### Magia tailerra

Udal liburutegia | Barrika

3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Doan.

2015/10/22 - 19:30

### Nola hobetu zure argazkiak

Astrabuduko osasun-etxe zaharra | Erandio

Radio Club Takolos taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2015/10/23 - 17:30-19:30

### Barikuetan Jai: herri-kirolak

Kultur Leioako ingurua | Leioa

Familia osorako jolasak. Euskaraz. Doan.

2015/10/23 - 19:00

### Nire bizikleta ipuin-kontaketa

Erandioigoiko kultur etxea | Erandio

Kontu Kantoi taldeak emana. Berbak eta marrazkiak batuko dituzte. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/10/23 - 19:00

### Liburutegi Publikoaren Eguna

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Besteak beste, *La última noche en Tremore Beach* eta *El mal camino* bere eleberrietz berba egingo du Mikel Santiago idazleak. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/23 - 19:00

### Galea aldizkaria eta Ramiro

Pinilla: 20 urte Getxoren

historian topaketa

Algortako kultur etxea | Getxo

Besteak beste, Ramiro Pinilla Imazek parte hartuko du. Moderatzailea: Lucia Martinez Odriozola. Sarrera, doan.

2015/10/23 - 19:00

### Tras las huellas de los balleneros vascos

itsasaldiaren aurkezpena

Itsas Estazioa | Plentzia

Sabino Lauricira itsasgizonak aurkeztuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/24-2015/10/26 - 20:00

Radio (Ozarrilla) film

2015/10/24 - 18:00

### La casa magica filma

Kultur etxea | Urduliz

Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,50 euro.

2015/10/24 - 19:00

### Trio Veracruz taldearen kontzertua

Berango Antzokia | Berango

Latinoamerikako musika; bolero ezagunakaz osatutako errepertorioa kantatuko dute. Gaztelaniaz. Sarrera, 3 euro.

2015/10/24 - 20:00

### Salomon eta Raul Ferveren bakarriketak

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Encomiados umore-bakarriketelen zirkuituaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera, 2 euro (Josu Muruetan eta udaletxean, salgai).

2015/10/25 - 17:30-20:30

### Dantzaldia, orkestragaz

Aitzagako azoka zaharra | Erandio

Pergola taldeak girotuta. Sarrera, doan.

2015/10/25 - 18:00

### Ipuin magikoak

txotxongilo-emanaldia

Berango Antzokia | Berango

Bihar taldeak emana. Euskaraz. Sarrera, 1 euro.

2015/10/26 - 18:00

### Liburu-foruma

Udal liburutegia | Barrika

Getxuko Auzokide Elkarteak antolatuta. Doan.

2015/10/26 - 19:30

### Madrigalchor Kiel (Alemania) abesbatzaren kontzertua

Erredentore eliza | Algorta

Getxoko 35. Aste Koralaren barruan. Doan.

2015/10/27 - 19:00

### Gastronomia berbaldia

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Plentziako Uria XVIII. Perretxiko Astearen barruan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/27 - 19:30

### Lira Children's Choir (Bielorrusia) abesbatzaren kontzertua

Erredentore eliza | Algorta

Getxoko XXXV. Aste Koralaren barruan. Doan.

2015/10/27 - 19:30

ERANDIO

## Putxera-lehiaketa, Astrabuduan

Zapatuan, urriak 24, Putxeren Nazioarteko III. Lehiaketa antolatu du Astrabuduko Takolos irrati-klubak. Goizeko 09:00etatik aurrera egongo da izena emateko aukera, 5 euro ordainduz. ◀

info+: takolos.org

LEIOA

## El desenterrador irratsaioren urteak

Bilboko Irola iratiaren *El desenterrador* underground musikako saioaren 11. urteurrena ospatuko dute, urriaren 24an, Udondo gaztetxean, 19:00etan. Knives, Melmak, A.D. eta Bloody Brotherhood taldeek joko dute. Sarrera, 5 euro. ◀

GETXO

## Donbasseko gerraren inguruko berbaldia

Ezkerretik Foroak antolatuta, eguazterean, urriak 28, Algortako kultur etxean emango du berbaldia, 19:00etan, gaztelaniaz, Ibai Trebiño *Berría* eta *Argiak* berritzaileak. Sei hilabete eman ditu Errusia Berrian. ◀

Fride (*Orguljo*) hitza

Kultur Leioa | Leioa

7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,50 euro (astelenean, 3,50 euro).

2015/10/24-2015/10/25 - 17:30

## ¡Upps! ¿Donde esta Noe? filma

Kultur Leioa | Leioa

Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,50 euro.

2015/10/24 - 11:00

## Por verdes valles: Getxo en la obra de Ramiro Pinilla

literatura-ibilaldia

Algortako kultur etxea | Getxo

Gustavo Iduriagak eta Lucia Martínez Odriozolak gidatuta. Gaztelaniaz. Aldez aurretik izena eman beharra dago. 4 euro.

GETXO

## Uxue Alberdik Euli-giro liburuaz jardungo du irakurleakaz, Algortan

Eguen honetan, urriak 22, *Euli-giro* ipuin-liburuaz berba egingo du Uxue Alberdi idazle eta bertsolari elgoibartarrak, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak (UKITX) gonbidatuta. Hitzordua 19:30ean ipini dute Algortako Aldai Patronatuan (Karitate kalea, 1); sarrera, doan. Azaroaren 26an, ostera, *Lorea Gernika*, *andrazko bat* liburuaz egingo du berba Koldo Izagirrek. ◀



Los hongos berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo

Basozaleak elkarrekin antolatutako Getxoko XXV. Mikologia Jardunaldien barruan, Jose Muñoz perretxiko adituak berba egingo du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/27 - 20:00

## Corazon silencioso filma

Kultur Leioa | Leioa

Perseo zine-forumaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, 2,50 euro.

2015/10/28 - 19:30

## Tous Ensemble (Argentina) abesbatzaren kontzertua

Erredentore eliza | Algorta

Getxoko XXXV. Aste Koralarren barruan. Doan.



SOPELA

## Tarzan euskaraz ikusteko aukera, domeka honetan

Urriaren 25ean, *Tarzan* filma euskaraz ikusteko aukera egongo da Kurtzio kultur etxean. 18:00etan hasiko da eta sarrera doan da. Saria animatu ikusgarria eraskuten du filmak paisata exotiko bizi-bizibatean; akzioz josita, bidaiari ederra kontatzen du, mundu izugarri batean kokatuta. Zineuskadik euskaratu zuen iaz filma. ◀

**1** Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

**2** [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

# Dantza garaikidea, ikusgai Sopelan

*Symbiosis* lana giza harremanak lotzen du Ziomara Hormaetxe artista gernikarrak; huts-hutsean, biologikoa eta zientifikoa den kontzeptua. Menpekotasun afektibo, emozional eta fisikoaren inguruan berba egiten du dantza garaikideko lanak, horrek dituen ondorio denakaz. ◀

Noiz: Urriak 24, zapatua

Ordua: 20:00

Non: Kurtzio kultur etxea (Sopela)

Sarrera: 6 euro



Zulotik

**ARMANDO LLAMOSAS RUBIO**  
 Kultura-ondarearen teknikaria

## Ondarea ez da turismoa, kultura baizik

Ondarearen Europako Jardunaldiak izan dira gure herrietan. Horietan, Aldundiak bultzatuta, udalek (batez ere) kultura ondareari buruzko zerbait berria eskaintzen digute. Programa ikusita, bistan dago, gure inguruko udalak nahiko alperrak izan direla.

Polita iruditu arren, ondo aztertuta, bertako udalek egindako programazioa ganora barik eta «erraza» da. Batzuetan, ekimenak urtean zehar ere egiten dira; bestetan, ez dute zerikusirik jardunaldien gaiarekin (Burdina, aurten). Esaterako, bisitaldi gidatu asko daude; ondo deritzegu, gidaria berezia izanez gero, aditua edo ez ohikoa. Hala ere, betikoak dira, gidari duinak normalean, baina betikoak. Jardunaldiek ahalegin berezia eskatzen omen dute. Ez badago zerbait eskaintzeko, ez egin ezer; datorren urterako zerbait pentsatzea izan ezik.

Alperrak, nekatuta, ideiarik edo gogorik gabeko udalak, edo... ondarearekin zer ikusirik ez duten sailek antolatu dute? Gure kultur ondarea gure udaletan kultura ez da, turismoa baizik. Aitzitik, kultura ez da turismoa, kultura baizik. Turismoak aprobetxatu behar ditu ondareak emandako aukerak, baina ondarea ez da turismo, kultura baizik. Halaber, gure kosta ez da turismoa, natura baizik. Turismoak aprobetxatu behar du, baina ingurumen sailak kudeatu behar du, natura da-eta. Gure udaletan, tamalez, ondarea turismo eta hirigintza artean dago. Batak zein besteak parte hartu behar dute; bai, baina kultura da; gure kultura sailek ahaztuta izan arren. Horregatik, ondareak «giriak» ekartzeko besterik ez du balio; ez guk disfrutatzen. Ondarearen Europako Jardunaldiak turismoek antolatzen dituzte; jardunaldiak, aitzitik, kultura dira, eta herritarrontzat. ◀

# Euskarazko ipuinak, gozagarri egunotan



Domekan, txotxongilo-ikusizuna egongo da Berangon. © BIHAR TALDEA

Egunotan, euskarazko ipuinak gozatzeko aukera edukiko dute eskualdeko neska-mutilek, hainbat herritan saioak antolatu dituzte-eta udaletako liburutegiek. Hala, bariku honetan, urriak 23, azken saioa eskainiko du Erandion Kontu Kantoï ipuin-kontalari taldeak. Hilabete osoan, emanaldi bana egin dute Alzagako liburutegian eta Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Oraingo honetan, Erandiogoikoko liburutegian emango dute *Nire bizikleta* izenburuko saioa; sarrera doan izan-

go da. Ekitaldia 19:00etan hasiko da; 4 urte edo gehiago dituzten umeentzat da ikuskizuna. Gaineratu dutenez, ipuinak berben eta marrazkien bitartez kontatuko dituzte.

Domekan, ostera, *Ipuin magikoak* izeneko txotxongilo-emanaldia eskainiko du Bihar Taldeak, Berango Antzokian. Hitzordua 18:00etan ipini dute, eta sarrera euro batean egongo da. Kontatuko dituzten hiru ipuinetan, sorginak, herensugeak, lamiak, loreak, tximeletak eta gura duenean ura dariola hasten den iturria agertzen

## Ekitaldiak

### Erandion

Urriak 23, barikua

19:00 *Nire bizikleta* izenburuko saioa, Kontu Kantoï ipuin-kontalari taldeak eskainia, Erandiogoikoko kultur etxean. Sarrera, doan. Berbak eta marrazkiak batuko dituzte.

### Berango

Urriak 25, domeka

18:00 *Ipuin magikoak* txotxongilo-emanaldia umeentzat, Bihar Taldeak eskainia, Berango Antzokian. Sarrera, 1 euro.

Ipuinetan sorginak, herensugeak eta lamiak agertzen dira.

### Leioa

Urriak 29, eguena

18:00 Lupe Lekuona ipuin-kontalaria, Kultur Leioako haur-liburutegian. Sarrera doakoa da, baina ezinbestekoa da izena ematea; Liburutegia itxita egongo delako 17:45etik 19:00etara.

dira. Gutxienez 3 urte dituzten umeentzat da saioa; neska-mutilen partaidea sustatu ohi dute saiootan.

Amaitzeko, urriaren 29an, eguena, Lupe Lekuona ipuin-kontalaria izango da Kultur Leioako haur-liburutegian, 3 eta 4 urteko neska-mutilen gozamenarako. Saioa 18:00etan iragarri dute, eta ez da zentimorik ere ordaindu behar izango. Hala ere, ezinbestekoa da aurretik izena ematea, Kultur Leioako arduradunek jakinarazi dutenez. Gaineratu dutenez, liburutegia itxita egongo da 17:45etik 19:00etara. ◀

## Nazioarteko taldeak Getxoko Aste Koralean

Polifonia protagonista bihurtuko da hiru egunean Getxon, Aste Koralean 35. edizioaren barruan. Hala, urriaren 26tik 28ra bitartean, nazioartean entzutea daukaten hiru abesbatza hurbilduko zaizkigu Algortako Erredentore elizara. Aurten, Madrigal Chor Kiel, Europa iparraldeko musikan espezializatutako talde alemaniarra; Lira Children's Choir, ahots zuriko abesbatza bielorrusiarra, eta Tous Ensemble, ganberako ahots-talde argentinarra izango dira Getxoko Aste Koralean; egun bakoitzean batek abestuko du. Saio denak arrastian, 07:30ean, izango dira. Sarrera doakoa izango da. ◀

### Egitaraua

#### Urriak 26, astelehena

19:30 Madrigal Chor Kiel, Europa iparraldeko musikan espezializatutako abesbatza alemaniarra, Algortako Erredentore elizan. Sarrera, doan.

#### Urriak 27, martitzena

19:30 Lira Children's Choir, ahots zuriko abesbatza bielorrusiarra, Algortako Erredentore elizan. Sarrera, doan.

#### Urriak 28, eguaztena

19:30 Tous Ensemble, ganberako ahots-talde argentinarra, Algortako Erredentore elizan. Sarrera, doan.

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Ingeleseko ipuinak entzuteko aukera edukiko dute hilero Leioako umeek

Kids&Us enpresagaz elkarlanean, Kipuin-kontalarien ingelesezko saioak eskainiko ditu hurrengo hilabeteetan Leioako Udal Liburutegiak. Familia osoari zuzenduta dauden arren, bereziki 1 eta 10 urte bitarteko umeentzat begirakoak dira *Storytime* izeneko saioak. Guztira, hiru izango dira: urriaren 24an, azaroaren 21ean, eta abenduaren 29an. Goizeko 11:00etan egingo dituzte emanaldiak, Kultur Leioako bibliotekan; sarrera, doan. Ekimenaren bitartez, umeen parte-hartzea eta inplikazioa lortu gura dute, ingelesez egin dezaten, eta, hala, zapatu goizak ingelesezko aisialdirako tarreak izan daitezten.



**Uxue Alberdi Estibaritz** (Elgoibar, 1984) idazle eta bertsolariak eguenean, urriak 22, berba egingo du *Euli-giro* (Susa, 2013) bere ipuin-liburuaz, UKITXeko lagunakaz. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Algortako Aldai Patronatuan. Sarrera, doan. Sei hilabeteko dago umedun elgoibartarra; jaio ostean, umeak utzitako denbora apurrak erabili gura ditu, zain daukan nobela idazten hasteko. Bitartean, Durangoko Azokarako, *Besarkada* albuma prestatu du; eta fikziozko ipuinak idatzi ditu, *Lur eta Amets*; *Euskal Herriaren historia* proiekturako.

## «Irakurlearentzat, inportantea da liburuak sortutako zirrarak idazlearekin konpartitzea»



KEPA UGARTE MARTIARENA

### Bertsolaria, idazlea, itzultzailea, kazetaria... Zer gehiago da Uxue Alberdi?

Ez naiz hori guztia! Badira urte batzuk, egunerokoan, kazetaritza utzita daukadala, baita itzulpenak ere. Tarteka tokatzen da testutxoren bat itzultzea, baina urte batzuk dira jada bi jardunetan zentratu nintzela: idaztea eta bertsoan aritzea; hitzaren inguruan, kontatzearen eta kantatzearen inguruan, alegia.

### Irakurzaleen taldeetan dinamizatzaile ere badiharduzu. Algortan, liburua aurkeztea suertatu zaizu.

Literaturaren inguruan beti gustura ibili naiz. Irakurle-taldeak gidatzen asko ikasi dut, eta inguruko irakurzale pila batekin harremana daukat; oso aberasgarria da. Lehentxeago esan dizut idazlea eta bertsolaria naizela gehienbat; eta aitortu behar dut horietatik bizitzea ez dela hain erraza. Gauzak horrela, praktikotasunetik begiratuta, irakurzaleen taldeak gidatzea egonkortasun ekonomiko txiki bat ematen didan jarduera ere bada; hileru hiru talde gidatzen ditut, eta asko gustatzen zaidan lana da.

### Irakurleengandik hurbil egotea abantaila da?

Idazle bezala irakurle-taldeetara joatea oso aberasgarria da. Gainera, esan beharra dago hizkuntza txiki batean idazteak ematen duen abantailetakoa bat dela hori: irakurlea oso gertu daukagu. Askotan aipatzen diet irakurzaleen taldeetako partaideei zorte izugarria daukagula gure idazlerik onenak, estilo batekoak zein besteak, ekartzeko aukera daukagula-

ko; alboan dauzkagun herrialdeetan, esaterako Espainian edo Frantzian, ezinezkoa litzateke.

Harreman horretatik asko ikasten du idazleak: jendeak nola irakurtzen duen, zer eskatzen dion liburu bati, eta abar. Idazleari entzuteaz gain, irakurleentzat oso inportantea da euren sentipenak edo liburu horrek sortu dizkienak egileari azaltzea; kon-

“ Eskuarekin ez ezik, ipurdiarekin ere idatzi egiten da. Eseri eta denbora eskaini behar zaio idazten ari zaren horri ”

partitzea. Izan ere, irakurtzea esperientzia bat da. Ez du bakarrik buruan jotzen, gorputzaren eta gogoaren hainbat zokotan baizik; eta pertsona bakoitza modu ezberdinean jotzen du.

### Zer gai aurkituko dugu *Euli-giro* liburuan?

Ipuin-bilduma bat da; ez dago gai jakin baten inguruan osatuta. Guztira, bederatzi ipuin dira, gai, pertsonaia eta egoera ezberdinekin. Baina, gai ezberdinak baino gehiago, agian, ezinegona-edo eragiten duen atmosfera jakin bat aurkituko du irakurleak. Ez da ipuin-liburu eroso, besterik gabe entretenimen-

durako egina. Are gehiago, esango nuke, batzuetan ez dela atsegina; euli-giro bat dago.

### Zer adierazi gura duzu *euli-giro* berba-jokoagaz?

Euliak inguruan dauzkanak eta apartatu ezin dituenak ia ezin du beste ezertan pentsatu. Euliak zomorro domestikoak dira, eta ipuinotako asko ere etxe barruetan gertatzen dira. Euliek ez dirudite arazo handia, eta ipuinotan ere ez da gertakari izugarririk, baina eguneroko traba txikiak ageri dira, lasai egoten uzten ez dizuen zurrumurru hori. Bestalde, oso ipuin fisikoak dira; gorputzak presentzia handia du ipuinetan, eta esango nuke irakurleen gorputzkeran eragitea ere izan zela nire helburuetako bat.

### Liburuaren azala ere ez da edozelakoa.

Askok gustatu zitzaidan Lander Garrok egindako azala; esan nion ez nuela nahi liburuko pertsonaia bat edo eszena bat erretratatzeko, ipuinak irakurri eta berari giro horrek zer sortarazten zion islatzea baizik. Lehenengoan esan nion baietz, argazkiak bat egiten zuelako ipuinek niri eragiten zidaten sentsazioekin.

### Emakumezkoak dira ipuinen pertsonaia nagusiak.

Gizonezko idazleei sekula egiten ez zaien galdera horietako bat da hori... Esan bezala, ipuin oso fisikoak dira, gorputzeko esperientzietatik abiatuak; asko, nik neuk bizitakoak; ni emakumea naiz, eta emakume-gorputzetik idazten dut. Bertan ageri dira haurdunaldia, jazarpena, familiak eragindako itomena,



© LANDER GARRO

guraso izan nahi eta ezina, ama-alaben arteko harremana, idazletza...; eta gorputzek presentzia handia dute. Hala atera zaizkit, hala nahi nuelako; banekanean gogoia emozio eta bizipen batzuk esploratzeko.

Iruditzen zait emakumeena nabarmendu nahi izaten den kontua dela, berdintasun-egoera batean ez gaudelako, hain zuzen ere. Badaude liburuak erabat gizonen osatuak, eta oso normala iruditzen zaigu. Gizona neutroa da; emakumea, aldiz, markatua.

#### Ama izateak eragina eduki zuen idazterakoan?

Erditu eta lehenengo bi urtean idatzi nituen ipuinak. Ama izan berritan, oso denbora gutxi neukan niretzat; ipuin guztiak arratsaldeko lauetatik seitara bitartean idatzitakoak dira, bi ordu horiek libratzen nituelako idazketarako. Garai hartan bizi nintzen alabari lotua, bularra emateari lotua, etxetik ia-ia ehun metro baino gehiago urrundu gabe. Nire ustez, nolabait, hori dena ere sartu da liburuan; etxea, harremanak eta emakume batzuen gorputza oso presente daude.

Nahiz eta idatzi dudan libururik ilunena izan, plazer handia izan zen niretzat. Fantasiarekin eta absurdoarekin jolastu nintzen; oso dibertigarria izan zen niretzat. Argi neukan zertan erabili nahi nuen garai horretan neukan denbora libre gutxi hura; asko disfrutatu nuen. Bere garaian ezinegon sentsazio handia eragin zidaten gaiak joratu nituen, baina distantzia batetik. Urrutiko euliek ez dute itolarririk eragiten...

#### Amatasunak on egin dio zure sormenari?

Dohain bat baino gehiago, lantzen den jarrera bat eta praktika bat da sormena edo artea; nahi duzun izena jar diezaiokezu. Sormena jarrera aktibo bat da bizitzaren inguruan filtro jakin bat sortzeko, errealitatea iragazki moduko horretatik pasa eta horren arabera emateko. Hortaz, esperientzia guztiak dira

**“Txapelketen beldurretatik urrun bizi nahi dut bertsolaritza; plazetako tentsio-maila nahikoa da niretzat”**

baliagarriak: ama izatea eta ez izatea, erditze bat eta abortu bat... edozer gauza da baliagarria. Nik, pertsonalki, oso garbi sentitu nuen zer zen nire denborarekin zer egin nahi nuen; argi ikusi nuen nire pasioak bertsolaritza eta idaztea direla, eta ahal dela, horretantxe eman nahi dudala denbora.

Erabaki horrek lagundu dit gauza asko sinpletzen eta nire bizimoduaren zutabeak definitzen: etxeak, lagunak, aisia, literatura eta bertsolaritza. Elkarrizketaren baten esan izan dut ez dela bakar-bakarrik buruarekin, eskuarekin edo bihotzarekin idazten; baizik eta ipurdiarekin ere idazten

dela. Kontua da lan egitea, eserita egotea eta denbora eskaintzea egiten ari zaren horri. Idazletzaren inguruko irudi erromantikoa erori zait apur bat, eta errealagoa eta praktikoagoa da orain. Nire erritmoak bilatzen eta errespetatzen saiatzen naiz, bai lanean eta bai bizitzan, oro har.

Adibidez, alabak hilabete eta erdi zeukala parte hartu nuen 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, eta orduan erabaki nuen berriro holakorik ez egitea, beldurretik aurkeztu bainintzen, ez gogotik. Orain oso lasai nago txapelketan izenik eman gabe. Txapelketak bere erritmo eta arau propioak ditu, eta eraman egiten zaitu. Olatu baten modukoa da. Besteen espektatibei begira jartzen gaitu, eta horrek beldurrera eramaten gaitu, ni bai behintzat. Nik, orain, ez dut bertsolaritza horrela bizi nahi; plazetako tentsio-maila nahikoa da niretzat. Egunerokoan jarraitu nahi dut, zer eta nola kantatu nahi dudan pentsatuz eta landuz.

#### Bertsolaritza aipatuta, zein da zure favoritua 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan?

Egia esan, oso bertsozalea naiz, eta entzule bezala asko disfrutatzen dut txapelketetan. Baina kontraesan bat ere badaukat: bertsolari bezala, oso estresagarriak iruditzen zaizkit txapelketak; zer ematen diguten argi ikusten dugu, baina ez dugu horren argi ikusten zer kentzen diguten sortzaile bezala.

Nire favoritua zein den? Ez dakit; ez zait horrenbeste axola. Niri bertsoa bera eta disfrutatzea inportatzaile gertatzen dena gertatzen dela ongi etorria izango da. Gainera, denak ezagunak dira, asko lagunak... Gertatu dadila gertatu behar duena; disfrutatuko dut eurekin batera.

#### Maialen Lujanbio ez da emakume sentitzen gizonen artean, bertsolari baizik bertsolarien artean.

Generoaren eta sexuen arteko botere-korrelazioarena oso gai konplexuak eta sakonak dira, eta arriskuak iruditzen zait norbaitek esandako esaldi bakarra apartatzea. Maialenek gogoeta asko eta oso interesgarriak egin ditu gai horren inguruan, eta esaldia bere testuinguruan ulertu behar litzateke. Askotan entzuten dugu emakume eta gizon baino lehenago pertsonak garela, baina nire ikuspuntutik, argi daukat gure jendartearen ez dagoela berdintasunean erakia; ezberdintasuna ezartzen zaigula ia-ia jaio aurretik. Orduan, alde batetik bai, ni bertsolaria noanean, bertsoa egiten dut gizon, emakume edo estralurtar batek egingo lukeen bezala; bertsolaria naiz. Baina, garbi daukat bertsoa gorputzari erabat lotua dagoela; oholtzara igotzen garenean publikoak jasotzen duen lehenengo gauza gure gorputza da, gure ahotsa eta ideiak entzun baino lehen. Edozeinek egiten duen lehenengo sailkapena da: gizona ala emakumea da?

Nik garbi daukat jendeak nigan bertsolaria ikusten duela, baino ez duela ikusten emakumearengandik bananduta; emakumea ere ikusten du, eta egiten ditu juzguak, sailkapenak eta aurreiritziak. Bertsoak jasotzeko modua pasatzen da berak bertsolariaz eta emakumeaz daukan iruditeria horretatik guztitik. Denoi gertatzen zaigu. Eta berdin gizonekin! Andoni Egaña ikusten dugunean, bertsolaria baino lehen gizona ikusten dugu, nahiz eta ez garen ohartzen, bertsoan gizonak aditzera eta ikustera ohituak gaudelako. Gure sexuak toki jakin batean kokatzen gaitu: klaseak, arrazak edo hizkuntzak bezala. ◀

**Emakumezkoen txirrindularitza-taldea osatu** du Elkar Kirolak-ek, Berango, Erandio eta Leioako udalek sustatuta. Eneritz Iturriagaetxebarria da zuzendaria.

## Elkar Kirolak-en talde berria, emakumeena

**E**lkar Kirolak elkarteak Berango, Erandio eta Leioako 23 urte azpiko txirrindulariak batzen ditu. Orain arte, gizonezkoen hainbat taldegaz egin dute lan: hasiberriak, kimuak, haurrak eta gazteak. 2013an, ostera, salto egin eta 23 urte azpiko elite-taldea osatu zuten, kirolarien hezkuntza-zikloa osatzeko. Baque-Campos txirrindularitza-taldegaz elkarlanean egin zuten. Pasa den urriaren 9an, berriz, emakumezkoen talde berria aurkeztu zuten, parekidetasuna txirrindularitzara ere heldu den seinale.

### Lointek. BZK eta Elkar Kirolak

Elkar Kirolak-en adar berriak 20 txirrindulari ditu; haietako 11, elite-taldean. Gazteak bost dira oraingoz, eta kade-teak, lau. Eneritz Iturriagaetxebarria Mazaga abadiñarrak zuzenduko du emakumezkoen talde berria, Humberto Gomezek lagunduta. Abadiñarra txi-

rrindulari ohia da, eta hainbat alditan Espainiako txapelketa irabazi du, erlojuaren aurka zein errepidean. Abadiñokoa BZK taldeko zuzendari ibili da aurreko denboraldian, pasa den iraile-ra arte. Aurretik, 15 urte jardun zuen pedalarari eraginez, talde amateur zein profesionaletan. Bere azken denboraldian (2011-2012), Sopolako Lointeken maillot laranja eta zuria jantzi zuen.

### Taldekide trebatuak

Iturriagaetxebarriagaz batera, Baque-Camposera etorri dira Ziortza Isasi, Maria San Jose, Aiala Amesti, eta Olatz Agorria, orain arte BZK-Emakumeen Bira taldeko txirrindulariak. Izan ere, aurreko denboraldiko BZK-ko taldekide denek utzi dute Iurretako taldea, eta Durangaldekoek UCI kategoriatik azpiko talde bat sortzeari ekin diote. Lidia Barba txirrindulari madrildarra fitxatuko zutela iragarri zuen BZK-k,



Eneritz Iturriagaetxebarria, ezkerrean, Baque-Campos taldeko elastikoa eskuan. © ELKAR KIROLAK

baina azkenean berak ere Elkar Kirolak elkartearen talde berrira jo du.

Iturriagaetxebarriak esan duenez, berak proposatu zion Elkar Kirolak elkarteari taldea sortzeko ideia: «txirrindulariei laguntzea da gure asmoa. Urte gogorra igaro dugu; ikusi dugu neskak oraindik egin barik heltzen zirela. Jabetu ginen hezteko beharra daukatela, eta guk erakutsi egin behar diegula. Gai pertsonalak direla-eta, ez genuen jarraitzea pentsatzen, baina azken orduan, Baque enpresako Mariaren bidez, Elkar Kirolak taldekoa-kaz hartu-emanetan jarri, eta adostasun batera heldu ginen», azaldu du.

### Helburuak

Iturriagaetxebarria zuzendariak azaldu duenez, txikitik handira egin gura du talde berriak, apurka-apurka: «behinena taldea sendotzea da. Hutsetik hasiko gara, eta ez dakigu noraino

heldu gaitzekin. Iraganen horrela egin dugu talde denetan, eta esperientziak arrakastatsuak izan dira orain arte. Hori ere horrela izango dela espero dugu». Hala, estreinako denboraldian Euskaldun Torneoan eta Espainiako Kopan lehiatuko dira, nazioarteko mailako lasterketetara joan barik: «Egongo da horretarako denbora, maila ona hartzen badugu», iritsi dio abadiñarrak.

### Parekidetasuna

Elkar Kirolak elkarteak ere helburu xumeak ipini dizkio bere buruari. Javier Garcia zuzendari nagusiak azpimarratu du talde denek, gizonezkoek zein emakumezkoek, tratu berdina jasoko dutela: «elkarteak argi du kide denak berdinak direla. Ez dugu bereizketarik egingo, eta denentzako berdintasuneko tratua izango da». ◀

info+: [elkarkirolak.com](http://elkarkirolak.com)



Espainiako Txapelketa eta Kopa irabazi zituen Saioa Gilek. JAVIER RUIZ LILI - AIARALDEA.COM

## Ziklo-kros denboraldi berria, oparoa gurean

**P**asa den urriaren 12an abiatu zen ziklo-kroseko denboraldi berria, Urduñan. Proba bizkaitarrak aho zapore gozoa utzi zien Uribe Kostako emakume-txirrindulariei, kategoriatan nagusitu ziren-eta. Alicia Gonzalez Sopolako Lointek taldeko lasterkari asturiarrak irabazi zuen sailkapen orokorra. Gazte- eta kadete-mailetan, berriz, nagusitu ziren Alba Fernandez eta Saioa Gil Baque-Campos taldeko txirrindulariak. Berango, Leioa eta Erandioko Udalek sostengatutako Elkar Kirolak elkarteak sustatzen du talde hori. Gizonezkoetan, Aitor Hernandez ermuarrak irabazi zuen

sailkapen orokorra. Beste saridunak izan ziren Adrian Garcia, Julen Latorre, Xabier Llamosas, Jose Domingo Cadavieco, Iñigo Burgos eta Aitor Zabaleta, hurrenez hurren 23 urte azpiko, gazteen, kadeteen eta 30, 40 eta 50 urtez nagusikoen kategorietan.

Urduñakoa Hego Euskal Herriko ziklo-krosaren aurtengo 18 probetako lehenengoa izan da. Hurrengo hitzorduak aste-akabu honetan izango dira, Abadiñon eta Karrantzan. Bestek beste, azaroaren 22an jokatu da Bizkaiko Txapelketa, eta abenduaren 27an, Euskadikoa. Urtarrilaren 3an amaituko da zirkuitua, Ormaiztegin. ◀

# Sendiren kirol-jaialdia, domekan



Fadurak hartuko ditu kirol-ekitaldi denak. © EGIZU

**E**gizu euskara elkartearen Sendi ekimenak kirol-jaialdia egingo du domekan Algortako Fadurak kiroldegiko frontoi eta igerilekuetan. Bertan, goizeko 11:00etatik 16:30era hainbat kirolez gozatzeko eskaintza prestatu dute. Kontuak horrela, hockeya, *skate*-a, boxeo, *slackline*-a, xake, arraun-surfa eta urpekaritza izango dira aukeran, txanda laburretan zazpi kirolak probatzeko. Jarduera denak doakoak dira.

Ur-kirolak eguerdian izango dira, eta parte hartzeko, alde aurretik izena eman beharra dago. Gainera, igerilekuan sartu gura duten neska-mutilek aurretik igeri egiten badakitela baieztatu beharko dute gurasoek. *Ska-*

*te*-a egin gura dutenek, ostera, kaskoa eta babesgarriak eroan behar dituzte.

Era berean, kirol bakoitzean gutxieneko adina ezarri dute antolatzaileek. Hockeyan eta boxeoan, gutxienez 9 urte izan beharko dituzte umeek; *skate*-an, 5 urte; *slackline*-an, 6 urte; xakean ere, 6 urte, baina gurasoren bategaz egon beharko du umeak. Azkenik, arraun-surfean ibiltzeko 7 urte beharko dituzte; eta urpekaritzan, 14 urte. Getxoko talde hauek lagunduko dute ekimenean: Northwind ur-kiroleko kluba, Getxo Skate Kluba, Xake Taldea, Boxeo Izarrak kirol-taldea, Hockey stick-kluba, Orekan Slackline Bizi eta Getxo Kirolak. ◀

info+: egizu.eus

## Daborduko, Galeako olatu handien begira

**P**asa den egunean zabaldu zen Galean Olatu Handien Txapelketaren 10. edizioa egiteko denboraldia. Itxarote-aldia otsailaren 28ra arte egongo da zabalik. Bitarte horretan, gutxienez 6-7 metroko olatuak beharrezkoak izango dira egun bakarrean lehiaketa egin ahal izateko, eta halako egun bat aukeratuko dute eguraldi aurreikuspenei kasu eginez.

Getxoko lehia hirugarren aldiz dago Olatu Handien Munduko Zirkuituaren barruan. Gainera, txapelketaren Europako egoitza bakarra da. Hori dela-eta, azken urteotan legez, olatu erraldoien munduko surflari onenak

erakarriko ditu: lehiaketan 24 surflarik parte hartuko dute; horien artean, rankingeko hamabi onenak; tartean, Natxo Gonzalez plentziarra. Haiekaz batera, nazioarteko sei surflari eta Euskal Herriko beste sei lehiatuko dira, gonbidatuta. Azken horiek honakoak dira: Aritza Saratxaga eta Jon Garai getxoztarrak, David Bustamante *Zuku* sopoloztarra, Adrian Fernandez de Valderrama, Indar Unanue eta Natxo Fernandez. Munduko zirkuitua zortzi probak osatzen dute. Oraingoan, bakarra egin da, Txilen, eta han Hawaiiko Makua Rothman munduko gaur egungo txapelduna izan zen irabazle. ◀



Iaz Nic Lamb estatubatuarra irabazi zuen Galeako txapelketa. Makua Rothman bigarrena izan zen.

## Zortzi blogari Rioko Olinpiar Jokoetara doaz

**G**azteaukera atariak eta Basque Team Fundazioak 2016ko Rioko Joko Olinpiko eta Paralinpikoetara joateko aukera emango diete 8 gazte blogariri, handik testigantza eman dezaten. Horretarako, lehiaketa bat abiatu dute, Gazte Olympic Team izenekoa.

Lehiaketa horretan parte hartzeko, «Euskal Selekzioak 10 domina eskeratu ditu Olinpiar Jokoetan» gaiaren inguruko idazlana edo bideoa bidali beharko dute interesa duten blogariek, Gazteaukera webgunearen bidez. Lanak aurkezteko epea abenduaren 15era arte egongo da zabalik. Sariak

hau guztia batuko du: Riorako hegaldiak, ostatura, kirol-jardueretarako sarrerak, bidaiako gastuak eta aseguruak.

### Euskal gazteen ikuspegitik

Ekimen horren bidez, kirol-jarduera garrantzitsu hori hurreratu gura diete euskal gazteei; munduan antolatzen den handiena da, eta horren jarraipena edo lanketa gazteen ikuspuntutik egin gura dute, gazteek gehien erabiltzen dituzten tresnen bitartez, esaterako blogen, sare sozialen eta bestelako informazio eta komunikazio teknologien bidez. ◀

info+: gazteaukera.euskadi.eus

## Bizkaia Kirolak sariak: Itxartu eta Getxo Arraun

**I**txartuk eta Getxo Arrauneko beterranoek irabazi dituzte Bizkaia Kirolak sariak. Unai Rementeria Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiak eman zizkien garaikurrak pasa den eguaztenean, Bilboko Foru Jauregiko harrera-aretoan egindako ekitaldian.

Algortako Itxartu kirol elkarteak kirol-taldearen saria jaso zuen, «egiten dituen jardueren maila altuagatik, kudeaketako kalitateagatik eta kirol emaitzengatik», epaimahaiak azaldu zuenez. Getxo Arraun elkarteak beterranoek, ordea, Jolas kirolaren arloko pertsona edo erakundearentzako saria lortu zuten, «kirol-munduan egindako

ibilbideagatik». Bizkaia Kirolak sariak dute helburua da «Bizkaiko pertsona fisiko eta juridikoei berez kirol-arloan egin duten lanagatik jendaurrean esker ona aitortzea», foru iturrien arabera.

Bizkaia Kirolak sariaren epaimahaiak, Lorea Bilbao Euskara eta Kultura diputatua buru, zazpi sari eman zituen, jasotako 31 hautagaitzatatik. Uribe Kostakoez gainera, Portugaleteko Andra Maria ikastetxea, Bizkaiko Errugbi eta Boxeo federazioak *ex aequo*, Sabin Uriarte Bengoa, Aitor Oroza Flores, Ermuko Udala - Mugi. Sari bat eman barik geratu zen. ◀



Denera, 18 lagunek osatzen dute Ugeraga Eskubaloia taldea.

**Ugeraga Eskubaloia estreinatu** zen pasa den irailaren 27an, Bizkaiko Bigarren Mailan. Lehenengo aldiz dauka Sopelak umeena ez den eskubaloia-taldea.

**L**au partida jokatu dituzte sopoloztarrek orain arte, eta sailkapen orokorraren buru dabilta, 7 puntugaz. Denera, hiru partida irabazi, eta beste bat berdindu dute. Talde berean, Erandio eta Askartza daude. Azken horien aurkako derbia jokatu du Ugeragak Leioan, domekan. Iñaki Gomez Lanzagorta hegaleko jokalarari sopoloztarrak azaldu

duenez, «talde ona sortzea lortu dugu, eta ondo pasatzeaz gainera, gure asmoa irabaztea da, eta hurrengo kategoriara igotzea, agian. Garrantzitsua da jendeak kirola ezagutzeaz gainera, ikusi dezala talde lehiakorra ere badugula». Haien gaitetik, Bizkaiko Lehenengo Mailan, eskualdeko beste talde bi daude: Urduliz eta Romo Indupime. Uribe Kostako Mankomunitateko he-

rrietan, orain arte Urdulizko taldeak baino ez du sano landu eskubaloia. Eskola-kirola alde batera utzita, ume sopoloztarrek Urdulizko harrobia izatea beste aukerarik ez dute izan.

#### Harrobia sortzeko gogoa

Ugeraga elkarteak iaz abiatu zuen Sopelan eskubaloia sartzeko proiektua, Gomezek gogoratu duenez: «gehienbat bildu gara batera jolastu izan garen kideok, denon artean eskubaloia herrian ikusgarri egiteko». Aitortzen duenez ez dute inolako arazorik izan Urdulizko klubagaz: «eskubaloian de-

nok elkar ezagutzen dugu, familia bat gara. Berba egin genuen, eta erabaki genuen Sopelan talde berria eratzea. Haur-taldeak kenduta, inoiz ez da egon eskubaloia Sopelan». Helburuei dagokienez, oinarrikoa da Uribe Kostan beste talde bat egotea, «herritarrei eskubaloia ezagutzera emateko. Uste dugu polita izango dela».

Baina, proiektua garatze aldera, anbizio handiagoko asmoak ere badituzte, tartean «proiektuagaz jarraitzea. Aurten hasi gara lagunartean, baina gure asmoa da datozen urteotan segitzea eta talde berriak eratzea». ◀

## Derbiak erregionaleko futbolera heldu dira

**B**erangoko Futbol Taldeko emakumeen hamaikakoak agur esan behar izan dio Erregionaleko Lehenengo Mailan zuen postuari. Izan ere, sano ahalegindu arren, Iturriagakoez ez zuten behar beste jokalaririk lortu, eta klubak uko egin zion lehiari. Bizkaiko futbolak beste emakume-talde bat galdu du.

Berango barik bada ere, kategoriako lehenengo taldeak lehia abiatu zuen urriaren 11n. Bederatzi taldeetatik lau uribekostarrak dira: Bizkerre B, Leioako Emakumeak B, Ugeraga eta Erandioko Betiko Neskak B. Hor-

taz, buelta bakoitzean sei derbi jokatuko dituzte. Haietako lehenengoa pasa den aste-akabuan izan zen San Lorentzon. Algortarrek 1-5 irabazi zieten erandioztarrei, Paulak, Trianak, Olgak, Saioak eta Andreak sartutako gol banari esker. Betiko Nesken aldeetik, Iratik egin zuen tanto bakarra. Aste-akabu honetan Bizkerrek bigarren derbia izango du, Ugeragaren aurka. Laugarren jardunaldian, Betiko eta Leioaren txanda izango da; eta bosgarrenean, Betiko eta Ugeragarena. Seigarrenean, Ugeragari eta Leioari egokituko zaie elkarren aurka jokatzea. ◀

## Irristaketa aste-akabua egingo dute Algortan

**D**atozen urriaren 31n eta azaroaren 1ean, zapatu eta domeka, irristaketagaz gozatu ahal izango da Algortan. Basroller kirol-elkarteak eta Bizkaiko Irristaketa Federazioak ekitaldi ludiko eta turistikoa prestatu dute zapatu horretarako. Kontuak horrela, Algortako Portu Zaharrean jarri dute hitzordua 17:00etan. Bertatik, interesatuek hogeikilometroko txangoa egingo dute Getxoko hainbat bidegorritatik.

Domekan, Getxo Skating Race lasterketaren bigarren edizioa izango da Ereaga hondartzan eta kirol-por-

tuan. Patinen gaineko proba goizeko 10:00etan hasiko da, 9 kilometroko neurri herrikoiaz. Ondoren, federatuen txanda helduko da, 10:45ean. Horiek maratoni erdia egin behar dute: 21 kilometro luze. Azkenik, 11:45ean, neska-mutirik itxiko dute proba, 2.400 metro eginez.

#### Izen-ematea

Interesatuek daborduko inskripzioa egin dezakete lasterketaren web-orriari. Hilaren 25a baino lehen egitekotan, prezio murriztagoak izango dituzte. ◀

izen-ematea: [Ttiki.com/342167](http://Ttiki.com/342167)

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com)



Egunero, 24 orduz  
[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)



## Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!  
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37



**DORA**  
SOPELA  
*Familiaren partez*

Zorionak, amama!!! 89 urte eta beti bezain eder eta alaia! Segi horrela! Milaka muxu, guztion partez! Asteburuan ospatuko dugu



**ARANTZI**  
ERANDIO  
*Berbotsen partez*

Zorionak! Egun zoragarria igaro, gure kirolari maitia! Alternatibean jaiari ospatuko dugu! Muusuak Berbotsen partez!



**MAITETXU**  
ERANDIO  
*Marianen partez*

Zorionak Maitetxu!!! Oporretan zaudenez hobeto ospatuko duzu! Zure lankideekin ere ospatu behar! Muusuak!



**DANEL**  
**ETA HODEI**  
GETXO  
*Izoko sorginen partez*

Ongi etorri mundura Danel eta Hodei! Zaindu amatxo eta aitatxo beraiek zainduko zaituzten beste! Gora Kortabarria-Pinilla familia!



## Horoskopoa



### Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Hilabetea amaitu aurretik zure soldata ez agortzeko, planifikazio arduratsua behar izango duzu, baina, batez ere, plangintza diziplinaz bete...



### Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Zuk umore ona eta festa-giroa jartzeko prestasun osoa izan arren, kontuz ibili; beti izaten da eta saminduta bizitzea gurago duena.



### Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Martitzena egun aproposa izango da aspaldidantik atzeratu duzun egitasmo hori abiatzeko. Orain, eguna libratzea baino ez zaizu falta.



### Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Arretaz eta patxadaz leitu arren, ez duzu egunkarian topatuko oraindino gertatu ez diren kontuen albisterik.



### Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Aspaldiko kontuak gogoratuko dizkizute ezustean aste honetan. Ez jokatu axolagabe, eta biribildu orduan amaitu barik utzi zenuena.



### Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Gastronomia exotikoa dastatu, elkarrizketa aberatsak izan, eta jende berria ezagutzeko aukera serratuko zaizu.



### Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Aspaldi galdutako jaka topatuko duzu bat-batean, ezusteko lekuan. Ez txarto pentsatu, denak dauka azalpen logiko eta on dradua.



### Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Aurrera joateko ordua heldu da. Esamesak eta enparauak alde batera utzi, zure asmoa kostatuta kostatuta betetzeko.



### Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Gonbita jasoko duzu zinemara joateko, beti ere sarrikerak zuk ordaintzen badituzu. Halere, batzuetan komeni da amarru txikiak onartzea...



### Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zure horoskopoparen sinboloa non dagoen jakin gura baduzu, lasai egon. Eguenetik zaptura eguzkia ibiliko da. Domekan, ordea, euritakoa hartu.



### Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Arazoa konpontze aldera, ez dizu askorako balio izango, baina hobeto sentituko zara lagun bati deitu eta beragaz partekatzen baduzu.



### Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Zeruko tximistak eta itsasoaren olatuak ez dira ezer gizakiaren harrokeriaren basamortuan. Bilatu oasia zure umiltasunean.

## Soluzioa



## Zazpi ezberdintasunak





**Ramiro Pinilla gogoratuko** dute aste-akabu honetan Algortan, idazlearen heriotzaren urtemugagaz bat eginez. Idatzi zituen lanak, zerabilen filosofia eta aurrera eroan zituen proiektuak ezagutu ahal izango dira, besteak beste, modu bortitzean desagerrarazitako *Galea* aldizkaria.

**B**ariku honetan, urriak 23, urtebete izango da Ramiro Pinilla idazle getxoztarra zendu zenetik. Hori dela eta edo hori baliatuta, omenaldi xume eta bikoitza egingo diote Getxoko liburutegiek, senideek, lagunak, auzokideek, zaleak, literatura-tailerrean bere arretaz eta kritika onberaz gozatu zuten idazleak, beragaz *Galea* Getxoko aldizkarian behar egin zutenek eta Ramiro Pinilla hobeto ezagutu gura duen edonork. Izan ere, barikuan eta zapatuan, hainbat lagunak Pinillaz berba egingo dute: bere lanaz, eta Arrigunaga hondartzan zein *Walden* base-rian idazleari aterpe eman zion udalerriaz, Getxoz.

### Idazlearen prentsa-lanak

Barikuan, 19:00etatik aurrera, Algortako Villamonte kaleko kultur etxeak topaketa berezia hartuko du: *Periodico «Galea» y Ramiro Pinilla: 20 años en la historia de Getxo*. (*Galea* aldizkaria eta Ramiro Pinilla, 20 urte Getxoren historian). Ekimen horretan, parte hartuko dute, besteak beste, Ramiro Pinilla Imaz idazlearen semeak, Paco Blanco lagunak, Ernesto Castro lagun eta idazleak eta Arantza Yurre aktoreak; Lucia Martinez Odriozola Kazetarien Elkargoko presidentea izango da moderatzailea. Pinillaren lan baten inguruan berbetan jardungo dute: 20 urte eskaini zizkion *Galea* aldizkariak, beren-beregi. Antolatzaileek akordura ekarri dutenez, «agerkari horren orrialdeetan Getxoko historiaren 20 urte islatzen dira, bereziki interesgarriak». Haien ustez, *Galea* «eskola izan zen hainbat gazterentzat: kaze-

tariak eta idazleak, argazkilariak, marrazkigileak... eta, horrez gainera, topagune izan zen garai hartan Getxo eraikitzeke haien denbora eman zutenentzat».

Topaketan parte hartzeko gonbidapena luzatu diete *Galea* posible egin zuten denei: «idatzi zutenei, irakurri zutenei, baita bertoko historiaren zati bat ezagutzeko grinaz etorri gura dutenei ere». Ekitaldian, aldizkariaren irudiak proiektatuko dituzte, herriaren eta bizilagunen argazkiak ere bai. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.

“**Galea eskola izan zen hainbat gazterentzat: kazetariak eta idazleak, argazkilariak, marrazkigileak...**”

### Adierazpen askatasuna

Ramiro Pinillak *Galea* aldizkaria zuzendu zuen sorreratik, 1985etik. Komunitatearen bizitza, komunitateak berak kontatzea zuen kezka kazetaritzari dagokionez. Aldizkarian, informazioaz gainera, orainaldiaren memoria gorde gura zuen, adierazpenari eta kultur-erreferentziei garrantzi handia emanez. Kazetaritzarekiko harreman horrek 15 urte iraun zuen, hainbat ezezagunek komunikabidearen erredakzioaren aurka molotov-koktelak bota zituzten arte. 2000ko urriaren 14an izan zen, gauean. Ez zen zauriturik izan, ez zen

atxiloturik izan eta jasandako kalte handiek ezinezko egin zuten *Galearen* abenturak aurrera egitea. Getxoko Udalaren Alkatetzak gaitzespen-adierazpena kaleratu zuen hurrengo egunean. Iñaki Zarragoa jeltzaleak «adierazpen askatasunaren aurkako eraso argitatzat» jo zuen aldizkariaren aurkako sabotajea. Bere ustez, «gutxiengo batek» egin zuen, «bere iritzia bortzaz inposatzea beste argudiorik ez dutenek». Getxoko Udalak eskatu zuen «getxoztar guztiek behin eta berriro adierazitako borondate demokratikoa eta elkarbizitza errespetatzea». Willy Uribe surf-argazkilari, *Galearen* kolaboratzaile eta Pinillaren literatura-tailerreko ohiko partaideak urte asko beranduago gaiaren inguruko ikuspegi zurrunagoa dauka, bere bitakoran adierazi legez: «*Galea* bertako informazio aldizkaria zen, Getxo inguruko eta hurbileko udalerrietako idazle, argazkilari eta kazetari askok lagundu zutena. Pasa den mendeko 80 hamarkadaren hasieran eratu zen eta Jarraren molotov-koktelek itxi zuten 2000ko urrian».

### Literatura-txangoa

Halere, *Galearen* esperientziaren errebasoa ez da izango aste-akabuko omenaldi bakarra. Domekan, goizeko 11:00etatik aurrera, literatura-txangoa antolatu dute, Lucia Martinez Odriozola eta Gustavo Iduriagagaz. Pinillaren trilogiarik ezagunenari gorazarre eginez, *Por verdes valles: Getxo en la obra de Ramiro Pinilla* (Ibar berdeetan zehar: Getxo Ramiro Pinillaren obran) izendatu dute ekimena. Algortako Villamonte kaleko kultur etxetik irten eta bi ordu eta erdiko ibilaldian, Pinillaren eleberrietan ezaugarri propioak izan dituzten guneak bisitatuko dituzte. Zoritxarrez, izena emateko epea amaitu da daborduko; beraz, aurretik egin ez dutenek ez dute parte-hartzerik izango. Halere, ez da lehenengo aldia aste-astero literatura-tailerrean joaten zen Martinezek txango hori egiten duena, Iduriagagaz batera. Hala

# Pinilla, literatur ondarea

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

azaldu zuen behin ibilbide horietako bat *El Correo* egunkarian: «Getxo bi daude: administratiboa, iparrean Sopelaren eta Berangoren mugakide dena, ekialdean Leioaren ondoan dagoena eta inguruan daukan beste guztia itsasoa edo itsasadarra dena; eta beste Getxo hori, fikziozkoa, Ramiro Pinillaren (Bilbo, 1923) obra luzearen orrialde bakoitzean ateratzen dena. Era berean, Ramiro bi ere badaude: batetik, sortzaile saiatua, borondate agorrezina duena; lan baten (*Verdes valles, colinas rojas*) bi mila orrialde baino gehiago idazteko gai dena, gerora horiekaz zer egingo zuen jakin ez arren, argitaratzaile izan ez arren, ezta argitaletxeetatik mugitzeko beharrezko abildaderik ere izan ez arren... Eta bestetik, bizitza publikokoa: Nadal edo Kritika sariak irabazten dituen 60 hamarkadan *Las ciegas hormigas* lanagatik, gerora literatura-panoramatik 40 urtez ia-ia desagertzeko». Martinez lekukoa izan zen, 2004an Tusquets argitaletxeak *Verdes valles, colinas rojas* lanaren ardura hartu zuenean, hiru liburutan argitaratzeko. Orduan, berriro ere, «itzalpetik atera zen Pinilla», Getxoko betiko *Walden* etxetik, eta komunikabideen eta kritika literarioaren arreta bereganatu zuen, sariak batera. 2010ean berrargitaratu zuten *Las ciegas hormigas*, idatzi eta 50 urtera. Martinezek azpimarratu duenez eleberria «erakuslehoetara itzuli zen; eta horregaz, idazlea egunero paseoan ibiltzen den paisaiak ere bai. Izan ere, Pinillaren arabera, Getxo ez da unibertsoaren erdigunea, horren jatorria baino. Agian itzuli eta itzuli egingo da paisaia horietara, haietan askatasuna topatu zuelako».

## Biografia

Ramiro Pinilla Bilbon jaio zen 1923an. *Las ciegas hormigas* eleberriagaz egin zen ezagun, eta Nadal Saria eta Kritikaren Saria lortu zituen. *Seno* lanagaz 1971ko Planeta Sariaren finalista izan ondoren, bere ibilbi-

dea ohiko literatur zirkuituetatik kanpo garatu zuen. Libropueblo argitaletxea sortu zuen eta liburuak hark berak saldu zituen. 2004tik aurrera, *Verdes valles, colinas rojas* trilogiagaz gaztelaniazko literatur sari garrantzitsuenetako batzuk irabazi zituen; Euskadi Saria ere jaso zuen. Horrela, berriro ere, lehen lerroa itzuli zen Pinilla, bati baino gehiagori idazle garaikiderik onenen artean zegoela erakutsiz. Eleberri gehiago idatzi zituen azken urteetan, literatura-tailerra mantentzeaz gainera. Azken unera arte komunistatzat izan zuen bere burua eta abertzale-tasunaren aurka mantendu zen.

## Azken berba: ikondoa

*La higuera* eleberrian, 1966an Fadura Getxo I institutuak hartu zituen lurretan kokatu zuen Pinillak protagonistaren historia: hamarkadak eman zituen ikon-

## Fadura institutuko irakasle eta ikasleek *La higuera* eleberriko fikziozko arbola bilatzeari ekin zioten, alferrik

do bat zaintzen. Gaur egungo irakasle eta ikasleek fikziozko arbola hura bilatzeari ekin zioten iaz, alferrik. Eta 2014an Getxoko Ingurumen Arloari eskatu zioten ikondo bat landatzeko; baita lortu ere. Ramiro Pinillak poztasun handia hartu zuen ospitalean zela, heriotza hurbil zuela. Aita hil ostean, Ramiro Pinilla Imaz semeak institutuari eman zion bere aitak *Walden* baserrian zuen ikondo kimua, bestearen ondoan haz zedin. Frankismoren biktimak gogorarazten dituzte biek egunero, ez ohiko idazle zenari esker. ◀

info+: [Getxoterritoriopinilla.blogspot.com](http://Getxoterritoriopinilla.blogspot.com)

## Pinillaren ondarea



**Misterio de la pensión Florrie** (1944). Romo P. Girca izengoitiagaz sinatu zuen.

**El ídolo** (1957). Mensajero saria.

**Las ciegas hormigas** (1960). 2010ean berrargitaratuta. Nadal saria eta Kritika saria.

**El héroe del Tonkin** (1961).

**En el tiempo de los tallos verdes** (1969).

**Seno** (1971). Planeta sariaren finalista.

**El salto** (1975).

**Guía secreta de Bizkaia** (1975).

**Recuerda, oh, recuerda** (1975).

**Antonio B... «el Rojo», ciudadano de tercera** (1977). 2007an berrargitaratuta, zentsura pasa ahal izateko erabili ez zuen izenburuagaz: Antonio B. *el Ruso, ciudadano de tercera*.

**Primeras historias de la guerra interminable** (1977).

**La gran guerra de Doña Toda** (1978).

**Proceso, anatemización y quema de una bruja en un ensayo general** (1978). Antzerki-gidoia, J.J. Rapha Bilbaogaz batera. Libropueblo bere argitaletxean autoeditatuta.

**Andanzas de Txiki Baskardo** (1979).

**Verdes valles, colinas rojas**, I. liburukia (1986). Libropueblo bere argitaletxean autoeditatuta.

**Quince años** (1990).

**Huesos** (1997).

**La estación de Getxo** (1998)

**Verdes valles, colinas rojas** (2004-2005). Hiru liburutan:

**La tierra convulsa** (2004). Euskadiko Gaztelaniazko Literatura Saria.

**Los cuerpos desnudos** (2005).

**Las cenizas del hierro** (2005). Kritika sarian bigarren, eta Espainiako Narratiba Saria.

**La higuera** (2006).

**Solo un muerto más** (2009). Samuel Esparta detektibearen lehenengo ikerketa (*Verdes valles, colinas rojas* liburuan konpontzeko utzitako auzia).

**Los cuentos** (2011). Ipuin-liburua.

**Aquella edad inolvidable** (2012). Euskadiko Gaztelaniazko Literatura Sarian bigarren.

**El cementerio vacío** (2013). Samuel Espartaren bigarren ikerketa.

**Cadáveres en la playa** (2014). Samuel Espartaren hirugarren ikerketa.

## Sukaldean

# Gaztaz estalitako oilasko paparra, kipula eta piperragaz



### OSAGAIK:

Kipula zuria, piper berdea, oilasko-paparra, *mozzarella* gazta, Idiazabal gazta ketua, azukrea, piper-hautsa eta ogia (etxean egindakoa bada, hobeto).

### LAIK TABERNA

Bentatxu Kalea, 2, 48600 Sopela  
Tel.: 946 760 000

Sopelara heldu gara oraingo honetan. Euria hasi du, eta babesleku bat aurkitzeko asmoz, Laiak tabernagaz topo egin dugu, udaletxearen atzealdeko kalean, hain zuzen ere. Barrara heldu, garagardo fresko bat eskatu, eta gosari aurre egiteko, pintxo bat hartu dugu, aste-akabue-tan eskaintzen dutena, 1,7 euroren truke. Horrelakorik prestatu gura duzu? Has gaitezen, bada.

Lehenengo, ogia txigortu beharko dugu olio apur batez, ogiak pintxoaren pisu guztiari ondo eutsi diezaion; ogia etxean egindakoa bada, hobeto gel-dituko zaigu mokadua. Jarraian, kipula eta piperra ondo txikitu, eta su txikian sueztituko ditugu. Horretarako, zartagin bat olio z betea, eta 20-25 minutuan

kozinatuko ditugu. Kipula eta piperra gorrituta dau-denean, azukrea bota, eta onduko ditugu. Hori egin-da dugula, prestatutako nahaskia alde batera utzi, eta oilasko-paparra hartuko dugu. Pintxoa osatzeko paparr zati bi beharko ditugu, «ogia ondo estaltzeko beste». Plantxan egin ostean, ogia hartu eta horren gainean kipula eta piperragaz egindako nahaskia ipiniko dugu, oilaskoaren ohea egiteko. Gainera oilaskoa jarri, eta hori *mozzarella* gaztaz ziprintzinduko dugu, barazkien nahaski apur batez. Ondoren, pintxoa labean sartuko dugu, 180 graduan, *mozzarella* gratinatzeko. Azkenik, Idiazabal gazta ketuaren zatitxoak botako ditugu gainetik. Hori eginda, prest dugu mokadua; on egin!

## faceguk



Zer deritzozu animaliak ikuskizunetan erabiltzeari?

### GARBIÑE BILBAO

LEIOA



Ez dut egoki ikusten animaliak festetan ikuskizun legez erabiltzea, animaliek ere sufritu egiten dutelako. Ekitaldi horiek legez kanpo uzteko ekimenak beharrezkoak dira.

### BEGOÑA ITURBURU

ALGORTA



Animaliak erabiltzen dituzten herrikiroren kontra nago. Ez ditut zezenketak gustuko, ezta antzarenak ere. Animalien sufrimendua erabiltzea basakeria da.

### ARITZ ALBONIGA

LEIOA



Idi-proben kontuagaz, ez nago ados. Ez da bidezkoa animalien sufrimendua ikuskizun izatea. Bide naturalagoak bilatu behar dira animaliakaz batera bizitzeko.

### ARITZ ARESTI

BARRIKA



Ez dakit zergatik, baina ez nago ados. Guk ez daukagu eskubiderik animalia bati guk gura duguna egiteko. Gu geu gara, eta guk askatasuna dugu guretzat, besterik ez.

### DIANA ABAD

LEIOA



Txarto iruditzen zait, animalien sufrimendua dela-eta; baina, iritzi guztiak onartzen ditut. Idi-probak kiroltzat hartzen da; okerrago ikusten ditut zezenketak, barbarako.

## Dastaketa fitxa

**GARAGARDOA:** Coronita.

**GARAGARDOTEGIA:** Grupo Modelo.

**OSAGAIK:** Pilsner motako lager garagardoa. Premium garagardoa da, kolore argi eta gardena duena.

**DASTAKETA:** Garagardoaren zapore leunak balantze ezin hobea eskaintzen du. Europako garagardo trinkoen eta garagardo *lighten* artean kokatzen da. Hobe da Coronita zuzenean botilatik edatea, lima zati batez eta -1 eta 5 gradu arteko tenperaturan.

%4,6 alk. bol.



### Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua